



ERRENERIAKO LGTBI
BIZTANLERIAREN
ERREALITATEEN
DIAGNOSTIKOA



ERRENERIAKO UDALA

IZENBURUA

ErreferenteEKIN

ERRENTERIAKO LGTBI BIZTANLERIAREN ERREALITATEEN DIAGNOSTIKOA.

EDITOREA

Errenteriako Udala

Herriko Plaza, z/g

TESTUAK

SUDERGINTZA, KOOP. ELK. TXIKIA

_Zuriñe Rodríguez Lara [Coord]

_Eli Etxabeguren

_Itziar Mujika

ZUZENKETAK

_Alaitz Andreu Eizagirre

_Jon Sanchez Barrado

IRUDIAK

SUDERGINTZA, KOOP. ELK. TXIKIA

xirimiri diseinuak

DISEINU ETA MAKETAZIOA

xirimiri diseinuak

2019ko Ekaina



AURKIBIDEA

	HITZARTZEA	6
01	SARRERA	8
02	BAZTERKERIARIK GABE BEGIRATZEKO ERREFERENTZIAZKO ESPARRUA	10
	LGTBI «KONGLOMERATUA»	11
	GARRANTZIA DUTEN FIKZIOAK	11
	KONTZEPTUAK ARGITZEN	12
	SEXU- ETA GENERO-ANIZTASUNA INTEGRATZEN DUTEN POLITIKA PUBLIKOEN ALDE	12
	ERRETERIA, HAZTEGI	14
03	BEGIRA! ERRETERIAKO LGTBI PERTSONEN BIZITZAK ETA BIZIPENAK	16
04	ESPazio PUBLIKOA	18
	EZ ESAN EZER, EZ GALDETU. IKUSGARRITASUNA KALERA!	19
	LGTBI SEGURTASUNAREN BILA	22
	AUZOTASUN BIZIGARRIEN ALDE	23
05	AISIA	26
	MASKULINITATE ITOGARRI GUTXIAGO ETA LGTBI IZERDI GEHIAGO	27
	HETEROEKIN DANTZAN?	29
06	SEXILIOA	32
	HERRI TXIKI, INFERNU HANDI	34
	NI BAKARRIK UTZITA JOAN ZINEN	35
	ERRETERIA, HARRERA-HERRIA	36

07	HIZKUNTZA	38
	EUSKALDUNA HETEROA DA	41
	LGTBI ERDALDUNAK EUSKALDUNTZEN	41
08	HEZKUNTZA	42
	ESKOLA HETEROSEXUAL BAT	43
	ESKOLA EZ DA HAIN HETEROSEXUALA	45
09	OSASUNA	46
	IKUSGARRITASUN GEHIAGO ETA ESTIGMA.GUTXIAGO.	47
10	LANA	50
	ARAZORIK EZ, BAINA IKUSGAITASUNIK GABE	51
11	ADMINISTRAZIOAREKIKO HARREMANA ETA PARTE-HARTZE POLITIKOA	54
	PARTE-HARTZE EFEKTIBOAREN ALDE	55
	MUGIMENDU BATERATU ETA INDARTSU BATERANTZ	56
12	IDENTIFIKATURIKO PROPOSAMENEN KRONOGRAMA	58
13	ONDORIOAK	62
	BIBLIOGRAFIA	65
	ERANSKINA	66
	PROZEDURA ULERTZEKO DOKUMENTU METODOLOGIKOA	67

HITZARTZEA

Orain lau hamarkada, kapazen (heteroarauetik kanpo, kokatzen garen pertsonen) mugimendua abiatu zutenek, irudikatzen al zuten hurrengo hamarkadetan eragingo zuten eraldaketa eta aurrerabidea? Izan ere, ez da kasualitatea Erreneriako Udalak LGTBI herritarren errealitateei buruzko diagnostikoa egiteko konpromisoari heldu izana, hain justu, Vicente Vadillo Santamaría, Francis trabestia eta Iztietako bizilaguna, bere auzoko Apolo dantzalekuan polizia batek hil zuela lau hamarkada bete diren urtean.

Gertakari hura gogoratzeko, orain bost urte ekin zitzaion 'Francis gogoan zaitugu' lelopean, urtero, Homofobiaren Aurkako Zebrabidea ortzadar banderaren koloreekin margotzeari, Francis trabestiaren omenez eta herriko lesbiana eta gay aitzindariari esker onez, auzolanean, arrabolak eskuan hartuta, herriko hainbat eragile eta erakunderen lankidetzatarteko. Ekintza sinboliko, parte-hartzaile eta koloretsu hori sei urtez jarraian berri izan, Francisen memoria ahanzturatik berreskuratzea, herritarren imaginario kolektiboan leku bat egitea eta bere auzoan bertan eremu bat berreskuratzea ekarri du, eta ondorioz, horrek guztiak, udal administrazioak LGTBI eremuan egin dezakeenaren gaineko kontzientzia hartzen hastea lagundu du, eskuartean duzun Oorereta/Erreneriako LGTBI herritarren errealitateei buruzko diagnostiko hau burutzeko ardura bere egiteraino.

ErreferenteEKIN izenburupean aurkezten zaigun lan hau, Bartzelona eta Gasteiz bezalako hirietan lehenago egin diren LGTBI herritarren errealitateei buruzko diagnostikoen ildoari jarraituz osatu da, eta gisa honetako hirugarren ikerlana denez, berria eta berritzailea da ikuspegiari eta azter-eremuari dagokionean bezala metodologiari dagokionean ere, aurreko biek ez bezala, esate baterako, hizkuntzaren aldagaiari berriaz arreta eskaintzen dionez. Baina ez dira gutxi izan ikerlariak bidean gainditu behar izan dituzten zailtasunak, epe estuekin, baliabide murriztekin eta aurreikusitako baino partaidetza mugatuagoarekin borobildu behar izan baitute azterlana. Horregatik guztiatik, esker oneko hitzak besterik ez ditut egin duten lanetatik eta bizi dugun garaia erakusgarri diren egitateen gordintasuna azaleratzen laguntzeatik.

Duela lau hamarkada, 1979ko ekainaren 10eko goizaldean gertatutako hilketa salatzen ziren bilera, batzar, manifestazio eta mobilizazioetan herritar ugari hartu zuen parte, eta tartean, herriko zenbait lesbianek eta gayek lehen aldiz aurpegia erakutsiz, 'Hemen gaude eta ez gara ezkututzen!' oihukatu zuten plaza publikora atera eta bizi zuten errealitatearen gordina ahots gora salatzen. Aurrekaririk gabeko gertakari haiek eragin zuten Orereta/Erreterria Euskal Herriko sexu askapenaren mapan kokatzea, eta LGBTI mugimenduaren historiaren hastapeneko mugarri nagusietako bat izatea.

Eta lau hamarkada beranduago, aurrekaririk gabeko lan hau ere beste mugarri berri bat ezartzera dator gurera, lehentasunez, LGBTI herritarrei euren egoeraz jabetu, ahaldundu eta antolatzen laguntzeko; ondoren, herriko eragile eta agintariei euren agenda estrategiko eta jardunetan aldagai hau behingoz integratzen hasteko, ikuspegiak argitzeko, eta etorkizuneko politiken eta jardunen norabidea zuzentzeko bezala osatzeko ere, justiziaren, egiaren eta erreparazioaren mesedetan aritzeak hala egitea eskatzen baitu. Eta azkenik, inguruko herri eta hirietan LGBTI herritarren errealitateei buruzko diagnostiko gehiago eta osatuagoak egin daitezkeen ere bai, mugarriz mugarri aurrera-bidea egin dezagun.

Horiexek dira lan honi opa dizkiodanak.

Imanol Miner Aristizabal
Orereta/Erreterria, 2019ko ekainean

01

SARRERA

SARRERA


Herriko hainbat aktibistak Errenteriako Udalari egindako eskaera baten emaitza da esku artean duzun dokumentua. Proposamena argia da: Errenteriako LGTBI pertsonen askotariko errealitateak aztertuko dituen diagnostiko bat egitea. Bada, pertsona horien egoeraren lehen argazkia da honako hau, eta hiru subjektu kolektibo hauek elkarrizketan/harremanetan jartzea du xede: LGTBI mugimendu politikoa, Udala eta Errenteriako komunitatea, bere osotasunean.

2019ko lehen lauhilekoan egindako elkarrizketa horretan, lehengo pertsonan arituz batzuetan, eta hirugarrenean besteetan, hainbat ondoriotara iritsi gara, eta datozen orrialdeetan emango dizuegu horien berri.

Dokumentu honen helburua ez da arau heterosexualari aurre egiten diotenen oraingo argazkia erakustea bakarrik; izan ere, harago joan nahi izan dugu, eta egin ditugun elkarrizketetan eta talde-eztabaidetan agertu diren proposamenen, estrategien eta eskaeren amalgama txukundu dugu, heteroarauan zentratzen ez diren politika publikoak diseinatzeko orduan baliagarriak izango direlakoan.

Horri begira, lau zatitan banatu dugu idazki hau: sarrera txiki batek osatzen duen lehen atal bat; bigarrenik, ikerketa burutzeko erabili den ikuspegi teorikoa jasotzen duen erreferentzia markoa; hirugarrenik, emaitza nagusiak eta laugarren atal batean, ondorioak.

02



BALTERKE—
RIARIK GABE
BEGIRATZEKO
ERREFERENTZIAL—
KO ESPARRUA

BAZTERKERIARIK GABE BEGIRATZEKO ERREFERENTZIAZKO ESPARRUA

LGTBI <KONGLOMERATUA>

LGTBI pertsonen inguruan hitz egiten dugunean, Brigitte Vasallok dioen moduan, komunitate baten inguruan baino gehiago, konglomeratu bati buruz hitz egiten dugu: pertsona heterogeneo ugari ostatatuko multzoa da, eta, batzen dituzten elementuak izan badituzte ere (sexu-disidentziako jarrera), gehienetan sakabanatuta egoten dira: zatikatutako taldea da, eta elkarren arteko hierarkiaz funtzionatzen du.

Ez da gauza bera gizon homosexual zuria izatea, klase ertainekoa eta bikote egonkorra nahiz prestigiodun lanbidea dituen, edo 65 urtetik gorako gaya izatea, migratzailea, prekarioa, seropositiboa eta norbere jabetzako etxebizitzarik gabea. Sexu-joerak batzen ditu biak, baina, besteren artean, klase sozialak, jatorriak eta maitasun- edo afektibitate-ereduak bereizten dituzte. Batak eta besteak jasaten duten zapalkuntza eta/edo pribilegio bakoitzak zehazten ditu bai beren bizitza, bai inguruarekin eta administrazioarekin duten harremana. Biak komunitate beraren zati izan arren, beren errealtateak dikotomikoak dira. Hala ere, sarritan, horietako baten baldintzen inguruan egiten den sinplifikazioa –normalean, pribilegiatuenaren gainean egiten den sinplifikazio hori– besteren gainetik ezartzen da, eta, ondorioz, LGTBI konglomeratuaren inguruko iruditeria bakar eta partziala sortzen.

Hala, iruditeria monokromatiko horrek eragin zuzena du komunitate heterozentratuak LGTBI pertsona bat denaren inguruko ideia eraikitzen duenean, eta, halaber, eragin zuzena du Berdintasunerako Sailek egiten dituzten politika publikoen subjektu-xedeen gainean. Adibidez, ErreferentEKIN egitean antolatutako eztabaida-talde batean, LGTBI kolektiboa zahartzeari buruzkoan, parte-hartzaileek aho batez adierazi zuten

ikusgarritasuna sustatzeko kanpainen (izan instituzionalak edo mugimendu politikoak) ez dutela euren inguruan hitz egiten, eta LGTBI pertsona gazteak bakarrik erakusten dituztela, «adin batera ailegatzen zarenean homosexuala izateari utziko bazenien bezala» [G003].

Gutziz beharrezkoa da begirada zabaltzea, bazterketa saihestea eta «konglomeratuaren» aniztasuna erakustea, baina gaur egun oraindik ere egiteke daukagun zeregina da hori. Beraz, hori dela-eta, lehen urratsa eman nahi dugu diagnostiko honen bitartez, eta, horri begira, Errenteriako LGTBI pertsonen Errenteriarako dauzkaten askotariko eskaerak, bizipenak eta proposamenak ikusaraziko ditugu. Aniztasun hori, zalantzarik gabe, era askotakoa da, askotariko bizipenez josirikoa, eta komunitate inklusiboago bateranzko ibilbidea egiten ari den herri honen bizitza nahiz egunerokotasuna aberasten ditu.

GARRANTZIA DUTEN FIKZIOAK

A priori, LGTBI etiketak amalgama hauskorra irudikatzen du, eta pertsona asko etiketa horren pean deseroso sentiarazten ditu horrek; are, komunitate horretakoak direlako sentipena etengabeko gatazkan edukiarazten die aferak. Bada, Coll-Planas-ek, Bustamantek eta Missék azaltzen duten moduan, aktibismoan zein egunerokotasunean islatzen da gatazka hori [2009]. Hala, egunerokotasunean, beren sexu-kondizioa ikusezin egiten dela sentitzen dutela adierazten dute bisexualak eta intersexualak, eta komunitate-kideek baino gizarte-bazterkeria handiagoa nabaritzen dutela diote transek.

Aktibismoan, adibidez, badaude kolektibo feministetan

bakarrak antolatu nahi duten lesbianak, eta kide homosexualengandik edo migratutako LGBTI pertsonengandik aldentzen dira. Azken horiek, aldiz, arrazakeriaren aurkako borrokaren aldeko apustua egiten dute maiz, LGBTI borroka alboratuz, azken horren borroka-logikak arrazistak eta kolonialistak direla uste dutelako.

LGTBI etiketa konplexua eta arazotsua izan daitekeen eraikuntza soziala bada ere, aldi berean, eraldatzailea izan daiteke; hau da, beharrezko fikzio bat da (Weeks, 1999), nor garen, zer nahi dugun eta geure burua nondik eraikitzen dugun ulertzea ahalbidetzen baitigu. Izan ere, garen hori izateagatik eta nahi dugun hori nahi izateagatik jasaten dugun zapalketa esplizituek egiten da eraikuntza hori. Jarrera politiko eta gorpuztua da, eta, beraz, araubide heterosexualek kanpo dagoenaren haragitzen den zapalketaren inguruko kontzientzia indibidual eta kolektiboa hartzea ahalbidetzen digu LGBTI konglomeratuak. Ondorioz, LGBTI etiketa estrategikoki erabilia borrokatu daiteke zapalkuntza (Coll-Planas, 2010), eta, aldi berean, politika publikoen xede izan daitezkeen eskaera zehatzak jasotzen dituen agenda bat ezartzeko balio dezake. Dena dela, eskaerok ez diote begiratzen zapalkuntza horren subjektuen bizitzak hobetzeari eta aldatzeari soilik, heteroarauan zentratuta dagoen komunitate osoaren bizitza (kasu honetan, Erreteriarrena) aldatzea ere helburu dute-eta.

KONTZEPTUAK ARGITZEN

Txostenean, LGBTI nomenklatura erabiliko dugu, ikuspuntu zabaletik abiatuta, ordea, honako subjektu hauek kontuan hartu baititugu [1]:

1 / Gayak, lesbianak eta bisexualak: pertsona ez-heterosexualek dira, edota sexu bereko pertsonenganako

1 / Honako eredu hauetatik hartu dugu diagnostikoaren kontzeptualizazio zabalago hori: Bartzelonako LGBTI herritarren errealitateen diagnostikoa (Gerard Coll-Planasek koordinatutakoa) eta Desirak Plazara, Vitoria-Gasteizko LGBTI herritarren errealitateen inguruko diagnostikoa.

erakarpena sentitzen dutenak. Talde honetan sartuko ditugu, halaber, kategoria horiekin erabat eroso sentitu gabe ere horien definizioarekin bat egiten dutenak (marrikak, bollerak, queer-ak, homosexualak).

2 / Transak: eredu normatiboaren arabera pertsona baten genero-identitateak bere sexuarekin bat egiten ez duenean erabiltzen da termino hau. Dena dela, modu zabalagoan erabiliko dugu, transexualak, transgeneroak eta trabestiak ere sartuko baititugu, kontuan hartu gabe generoa aldatzeko ebakuntzarik egin duten ala ez.

3 / Intersexualak: anatomia edo, zehazki, sexu-organoak anbiguotzat sailkatuta dauzkaten pertsonak dira, bi sexu hegemonikoetatik batean ere kokatu ezin daitezkeenak (Calvo, 2012). Intersexualek zalantza jartzen dute genero-binarismoa, agerian uzten dutelako sexuen arteko banaketa ez dela hain argia eta maskulino/femenino kategorietatik harago doan *continuum* biologikoa dela.

SEXU-ETA GENERO-ANIZTASUNA INTEGRATZEN DUTEN POLITIKA PUBLIKOEN ALDE

Erreteriarako Udalaren Berdintasunerako Sailak sustatzen du ErreferentEKIN ekimena, sail horretan diseinatzen diren politika publikoen zuzeneko hartzailetzat har daitezkeen LGBTI pertsonak. Gaur egungo testuinguruan, emakumeen eta LGBTI pertsonen aurkako diskurtso xenofobo eta beligeranteak gora egiten ari dira, eta, horren ondorioz, krisi orokorrari nahiz gaitzuste politiko orokortuari irtenbide sinplistik eta populistak emateko errudun perfektutat jotzen dira batzuk zein besteak, modu berean (Miralles, 2019). Hortaz, herrigintzarako premiazko erronka da berdintasunerako politiken subjektua zabalduta eta sexualitate eta genero ez-normatiboak izateagatik bazterkeria pairatzen duten horiek guztiak ere kontuan hartzea.

Orain artean, hein handi batean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko politikak disei-

natzera bideratu da Berdintasunerako Zerbitzuen lana; hala nola, batez ere emakumeei zuzendutako programen bitartez [adibidez, Udalaren Berdintasunerako II. Plana]. Alabaina, Udala Berdintasunerako III. Plana ari da egiten oraintxe bertan, eta hortxe zabaldu zaigu subjektuak zabaldu eta sexu- eta genero-aniztasuna aintzat hartuko dituzten neurri eta ekintza zehatzak sartzeko aukera. Bada, diagnostiko honek emango ditu eremu horretarantz aurrera egiteko argiak –baita itzalak ere–, eta LGTBIfobiaren aurkako lan-ildo berri bat ireki ahal izango da, mugimendu politikoarekin hitz eginez, heteroarauan zentratutako herri honen praktikak eraldatzeari begira.


Hala ere, horri ekin aurretik, bazterkeria susta dezaketen ikuspegi eta planteamendu teorikoak ez errepikatzeke daukagun arduraren berri eman nahi dugu; hots, garrantzitsua da sexu-genero sistema kritikoki birpentsatzen ez duen eta pertsonen sexu- eta genero-aniztasuna kontuan hartzen ez duen genero-eredu normatibotik ihes egitea.

Hortaz, egoki ikusi dugu zenbait kontzeptu azaltzea. Hala, Coll-Planasek (2015) adierazten duen moduan, hiru zutaberen bidez eusten zaio arauzko sexu-genero sistemaren ereduari:

1 / Gure gorputz eta genitalen arabera eme edo ar egiten gaitu **sexuak:** zuzenean kanporatzen ditu intersexualak.

2 / **Generoak** sexu bakoitzari egozten zaizkion ezaugarri kulturalen arabera bereizten ditu gizonak eta emakumeak. Feminitateari dagozkion ezaugarriak emakumeei dagozkiela onartzen da, eta maskulinitateari dagozkionak gizonei edo arrei dagozkiela. Saillkapen honek pertsona transak baztertzen ditu.

3 / **Sexu-joerak** maskulinoaren eta femeninoaren arteko osagarritasuna zehazten du, eta heterosexualitatea jotzen du oinarri bakartzat. Honela, pertsona homosexualak, lesbianak eta bisexualak kanporatzen dira.



Taulan ikus daitekeen bezalaxe, sexu-genero eredu hori murriztailea da, binarioa, biologizista, baztertzaila, heterozentrista eta diskriminatzailea delako. Horrenbestez, ErreferentEKINen ihes egiten diegu horrelako planteamenduei, eta eredu teoriko feminista eta postmodernoari heltzen, muga horiek zeharkatzea eta identitate guztiak aintzakotzat hartzea baitu helburu.

Horretaz gain, dokumentu honetan aurkezten diren errealitate eta bizipenetara iristeko, begirada interseksionala erabiliko dugu; hain zuzen ere, diskriminazio mota batzuei beste batzuei baino arreta handiagorik ez emateko xedez [2]. Begirada horri esker, hainbat analisi-kategoria har daitezke kontuan (hala nola, klasea, jatorria, osasuna, adina...), beraien artean hierarkiarik ezarri gabe: elkarrizketan jartzen ditugu kategoria guztiak. Diagnostikoko parte-hartzaileetako batek dioen moduan: «Gaya naiz, beltza, errefuxiatua, ordena hori jarraitu gabe: dena batera» [G005]. Bada, parez pare erronka ikaragarria jartzen digun ikuspuntu-aldaketa daukagu esku artean, zapalkuntza horiek guztiek aldi berean eta elkarren mende jarduten baitute bizitzaren hainbat esparrutan.

ERRETERIA, HAZTEGI

Erreterian baino lehen, Euskal Herriko beste herri eta hiri batzuetan [3] egin dituzte LGTBI errealitateen inguruko diagnostikoak, eta lan horien ondorioak eta proposamenak baliagarriak izan dira oso lan honetarako, gida modura. Dena den, Erreteria errealitateak badu ezaugarri zehatz bat, oharkabean igaro ezin –eta igaro behar– ez dena.

2 / Interseksionalitatea, beste hainbaten artean, Patricia Hill Collinsek [1991] sortutako kontzeptua da. Paradigma-aldaketa egitea dakar kontzeptu horrek, zapalkuntzak baturatzat hartu ordez elkarri eragiten dioten faktoretzat jo behar direla adierazten baitu.

3 / Vitoria-Gasteiz hirian egindakoa online kontsultatu daiteke: <https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/95/11/79511.pdf>


39.40.030 biztanle inguruko herri hau Euskal Herriko LGTBI mugimenduaren muina da, hastapeneko ernamuina. Izan ere, 1979ko ekainaren 10ean, Polizia Nazionalak «Francis» Francis Vadillo trabestia hil zuen Iztietan auzoko Apolo aretotik gertu, eta herriko LGTBI aktibistak hunkitu zituen gertaera hark. Ondorioz, kalera atera ziren, asanbladak antolatu zituzten, eta elkarrizketak egin zituzten hainbat komunikabiderek. Gaur gaurkoz, ErreferentEKINen parte hartu dutenen memorian bizirik jarraitzen du oraindik zigorrik jaso ez duen gertakari hark, eta hala gogorarazi digute behin eta berriz. Mugimendua bera eta mugimenduak egun Udalarekin duen harremana berrantolatze lagungarri gerta daiteke jazoera hura:

«Erreteriak badu berezitasun bat; Francis dago, eta horren bueltan denak batu gaitzake: egon zirenak, egon garenak eta egongo direnak. Esan genezake martiri bat dugula, LGTBIko komunitateko martiria, eta hori asko da» (G002)

Giza Eskubideen urraketa hura [4] denbora gutxira kristalizatu zen mugimenduaren antolaketa kolektiboarekin, hamarkada haren amaiera aldera sortu baitzen EHGAM (Euskal Herriko Gay Askatasunaren Mugimendua). Orduetik, Erreteria LGTBI mugimendua oso aktiboa izan da, lesbiana-talde autonomo bat sortzeraino; aurrerago ikusiko dugun moduan, gaur egun oso ahulduta, polarizatuta eta berriro pizteko premian badago ere. Dena dela, baldintza objektibo, sinboliko eta materialak egon badaude horretarako, sekulako haztegia baitago Erreterian, LGTBI mugimendua diagnostiko hau egiteko orduan nola inplikatu den ikusita egiazta daitekeenez:

4 / Honela jasotzen da *Memoria partekatu baterantz* liburuan. Erreterian 1956tik 2012ra bitarte izan diren giza eskubideen urraketek eta indarkeria-ekintzeki buruzko txostena. Ale osoa web orrian kontsultatu daiteke <https://herribizia.erreteria.eus/app/uploads/sites/2/2015/11/HACIA-UNA-MEMORIA-COM-PARTIDA.pdf>


«Lagugarria izan da elkarren artean biltzeko. Bileran asko gara, eta horrek behar bat dagoela erakusten du. Orain talde bat sortu behar dugu: hilabete hauetan sortu dena kohesionatu behar dugu. Horrelako beste proiekturen bat behar da» (X001)



03 BEGIRA!



ERRENTERRIAKO
LGTBI PERTSONEN
BIZITZAK ETA
BIZIPENAK



BEGIRA! ERRENTERIAKO LGTBI PERTSONEN BIZITZAK ETA BIZIPENAK

Ikerketa-prozesu osoan bildutako informazioa 70 orritan islatzea ia ezinezkoa da, oso ugaria, askotarikoa eta zabala baita. Prozesuan, ia ehun pertsonak hartu dute parte elkarrizketa sakonetan, bileretan, eztabaida-taldeetan eta lineako galdetegietan [5]. Bakoitzak erosen egin zaion moduan hartu du parte, eta, are, modalitate batean baino gehiagotan aritu dira batzuk. Tresna metodologiko ugari erabili izanak askotariko errealitateetara modu sakonagoan gerturatzea ahalbidetu digu, ikerketaren subjektuaren irudia ahalik eta gehien zabaltzearekin eta ukitu homogenezatzaileak saihestearekin batera.

Bada, *Bartzelonako LGTB herritarren errealitateen diagnostikoan* harilkatutako proposamen metodologikoa erabili dugu, gure diagnostikora egokituta. Horregatik, espazio publikoaren, astialdiaren, hezkuntzaren, osasunaren eta lan-eremuaren erabilera aztertzeaz gain, harago begiratu nahi izan dugu, eta LGTBI «konglomeratuak» bere hizkuntzarekin eta beste hizkuntza batzuekin duen harremana edota bere lurraldeko memoria kolektiboarekin duena zein den ikusi nahi izan dugu, bai eta zer-nolako parte-hartze politikoa duen edota sexilio-prozesurik gertatu den ere, eta, halako prozesurik egon bada, nola gertatu den.



04

ESPAZIO PUBLIKOIA

ESPAZIO PUBLIKOA

Espazio publikoa bizi garen lekua da, komunitatea erai- kitzeko eta gure bizilagunekin, maitaleekin, lagunekin topatzeko eta erlazionatzeko dugun lekua. Alabaina, espazio publikoa leku oldarkorra ere izan daiteke, lanera edo erosketak egitera joaten garenean diskri- minazio-forma anitz izan ditzakeena.

EZ ESAN EZER, EZ GALDETU. IKUSGARRITASUNA KALERA!

LGTBI konglomeratuaren gehiengo handi batentzat, Erreterria bizitzeko leku atsegina da, eta ez du etsai- tasun handirik identifikatzen bere egunerokoan. Ba- lorazio orokorra oso positiboa da [% 80]. Aldiz, euren kontakizunei erreparatuz gero, % 75ek baino apur bat gehiagok adierazi dute espazio publikoan arazoren bat bizi izana; ahozko erasoekin eta beldurra eragin duten begiradekin lotutako arazoak izan dira, kasu gehienetan.

«Kaletik nire bikotekidearekin joan, bat albotik pasa eta modu txarrean esan: Hara, horiek bollerak dira!. Hori, egunez, 14 urteetatik. Eta ez dago profil bat; jende anitzek esan dizkit horrelakoak. Gauean, neurritz kanpo. Beti esaten dut: egin ditudan 10 parrandatik 9tan hurbildu zait mutilen bat, Oso bero jartzen ari naiz; laguntza behar duzue: gaizki pasarazten didazue. Beti erantzun eta defendatu izan naiz, eta, batzuetan, hori egitean, agresibo jarri dira, baita besotik heltzeraino ere. Topoan behin oihuka esan zidaten: Bi neska elkarri potorra jaten imajinatze hutsak nazka ematen dit. Isilik geratu nintzen, banekielako zerbait esanez gero ostia bat emango zidatela. Gauza horiek etxera eramaten dituzu eta eragiten dizute: kalte egiten dute» (L001)

Bada, beraz, pertzepzioen eta bizipenen arteko distortsio bat. Etsaitasun latente gisa identifikatzen ez bada ere, segurtasun-sentipena ez da de facto existitzen. Par- te-hartzaile gehienek askatasun-sentipena garai bateko mugimendu politiko indartsu batekin lotzen dutelako gertatzen da binarismo hori. Baina, aldiz, hori ez da euren bizipenetaraino iritsi. Parte-hartzaile gazteenek, gainera, onartzen dute Erreterriako kaleetan «LGTBI pertsonen presentzia handia» egon izan dela, baina egun «ikusgaitasunak oso konplikatu izaten jarraitzen duela» (L003).

«Oso nortasun handia izan duen herri batekoa naiz. Gure herria salbuespen bat izan da»(G001).

«Niretzat zapalkuntza bat izan da kalean nire sexualitatea adierazi ezin izana, argi baitago arriskurako esposizioa erreala dela, ez dela asmatutako zerbait (...) Bo- lleren kasuan, ez dut neskek kalean eu- ren maitasuna erakusten ikusi izanaren oroitzapenik, eta horrek erakusten du segurtasuna dagoen ala ez. Ez dago. Izan ere, faltan botatzen dut nire maitasuna nahi dudan lekuan adieraztea; aitzitik, etengabe hori ekiditea eta arriskutik ihes egitea da ohiko egoera» (L008)

LGTBI komunitateak, bere osotasunean, udaletxearen lehentasunezko egiteko gisa identifikatzen du ikusgarri- tasunarekin konpromezua adieraztea eta, horretarako, hiru ekimen proposatzen ditu:

Lehenik, mugimendua dagoen tokietan eta erabilera masiboko espazio publikoetan (autobusetako marke- sinetan, udalaren espazioetan, plaza eta parkeetan, elkarte gastronomikoetan, eskoletako sarreretan, etab..)

sexu eta genero aniztasuna erakutsiko duten karteekin kanpaina instituzional bat martxan jartzea, guzti hau komunikazio kanpaina indartsu batekin sostengatuz. Egonkorra izango den eta, gazte homosexualaz haratago komunitatearen aniztasuna erakutsiko duen kanpaina bat proposatzen da.

Bigarrenik, LGTBI mugimenduekin batera urteko programa kultural zabal bat diseinatzea (hilero jarduera bat), LGTBI-ak diren erreferente positiboak udalerrri osora zabaldu eta arau hegemonikoaren disidenteak diren sujetuentzako elkargune bilakatzeko balioko duen programa. Jarduera hauek espazio publikoan burutzea proposatzen da, espazioa bera okupatuaz, ikusgarritasunaren katarsi bat sortzen lagunzeko; aukera gidan hainbat adibide ematen dira: kale antzerkiak, trabestien kalejira, transbertso emanaldiak, giza disidenteen tribialak, yinkanak, etab.

Hirugarrenik, Harrotasunaren egun bat ospatzea proposatzen da (ekainak 28aren bueltan), egun osoko jarduera eta ospakizun hauekin erdiguneaz gain herriaren kanpoaldeak okupatzea ere aipatzen da. Egun honetan inplikazio instituzional zabal bat egotea eskatzen da, LGTBIfobiaren aurkako adierazpen bat, baliabide ekonomikoak eskaintzea eguna antolatzeko, ortzadarraren zein trans-en banderak udaletxean zabaltzea, etab.

Nahiz eta, Erreterria egunerokotasunean bizitzeko herri adeitsu gisa identifikatzen den, ez dago erasoetatik libre. Eraso hauetan, segun eta nori zuzenduak diren, gradu, konnotazio eta eduki ezberdinak identifikatzen dira. Honela, emakume, lesbiana eta transen kasuan, jasandako erasoak misoginia-maila handikoak bezala identifikatzen dira, eta beti gizon heterosexualek egingakoak. Gizonak maskulinitate hermetikoa baieztatzen erabiltzen duten mekanismoa da, emakumeen arteko plazerzko sexualitate posiblea ukatzekoa.

«Kalean, poema bat zen: Eta neska hauek bakarrik? esaten zuten gizonak. Kanoi-bazka bezalakoak ginen, eta liskar asko izan ditugu. Zer ginen ez zekitenak gurekin ligatzera etortzen ziren, eta zer ginen bazekitenak adarra jotzera etortzen ziren. Boladak zeuden, herriko festetan, non gizonak oso gogaikarriak ziren. Orain ere badira» (L006)

Eraso LGTBIfobikoak misoginiarekin elkar gurutzatzen diren moduan, xenofobiarekin ere gauza bera gertatzen da. Bada, espazio publikoan, pertsona arrazializatuek edo pertsona migranteek erasoak, begiradak edota espresio arrazistak jasan dituzte [6].

«Kale eta tabernetan, jendeak begiratzen ninduela nabaritzen nuen. Bada, gu hona etorri izana gustatzen ez zaionik. Behin lagun bati gerturatu zitzaizkion, beltzak, hona, haien emakumeak lapurtzera etortzen ginela esateko. Guri emakumek gutxi interesatzen zaizkigu ba.» (G005)

Era berean, beren LGTBI izaeragatik asilo estatusa duten pertsonak, herrira egokitzeko prozesu gogor baten ondoren, Erreterria arnas gunerako, harrerarako eta beren sexualitate eta genero izaera, espazio publikoan, askatasunez bizitzeko herri gisa sentitzen dutela diote:

«Erreterriara iritsi nintzenean, beldurragatik ez nintzen kalera ateratzen. Emakume trans-a izateagatik gaizki begiratuko nindutela uste nuen, ez nengoen nire herrialdean eta ez nekien gauzek nola funtzionatzen zuten. Talde antisozial baten mehatxaturik iritsi nintzen hona eta bazterketari nion beldurra izugarria zen. Lotsa sentitzen

6 / Harreta deitzen du, egindako elkarrizketetan partaideek begirada arrazista hauek LGTBI komunitatearen barruan ere bizi izan dituztela aipatu izanak.

nuen, baina, denbora pasa ahala lotsa hori desagertzen joan zen. Behin kalera irten nintzen eta ezer pasatzen ez zela konturatu nintzen, eta geroztik, dena ondo joan da. Seguru paseatu dut.» (T002).

Pertsona batzuek, gainera, intentsitate handiagoko erasoei ere egin diete erreferentzia, jazarpen sexualari dagokionez. Gaez izaten da, festa-testuinguruetan -Madalenetako festetan-, gizon heterosexualak homosexual gisa identifikatu dituzten gizonetikoa. Sarritan, gainera, aurretik ezagutzen zituzten pertsonekin egiten dute.

«Ni nintzen bisiblea eta beraiek ez, jaietan edo parrandan geundela. Eta, momentu batean, jazarpen moduko bat sentitu nuen. Etortzen zaizu bat esanez: Zakila jango didazu, gaya zarelako. Beste batean, komunean nengoen, eta beste tipo bat sartu zen komunera. Oso bortitza da niretzat. Ez dira izan pertsona ezezagunak: ez dira lagunak, baina bai ezagunak. Denak, gainera, ezkonduak. Hori egitea autozentsura da, eta ez edonori kontatzea gaya zarela» (G003).

«Behin eta berriz, batez ere gizon helduen proposamenak; jazarpena festan, eta gure artean sartu nahi izatea, besarkatuta gauden bitartean. Horrek niri autozentsura eragin dit. Ez ditut keinu afektibo berberak egiten neska batekin edo mutil batekin nagoenean» (Inkestetan, bisexuala)

Badira, aldiz, prozesuan zehar espazio publikoan arazo zehatzak identifikatzeko gai izan ez direnak ere, halako arazoak izan dituztela argi adierazi duten arren. Beraz, bada indarkeria LGBTIfobikoaren mekanismo normalizatzaile bat, etengabeko alerta-egoera baten aurrean babes gisa funtzionatzen duena. Eta, horrekin

batera, badira noizean behin inposatutako autozentsura egitea edo euren orientazioa ezkatutzea erabaki izana onartu dutenak, balizko erasoan aurrean euren burua babesteko.

«Hain dago ohitura barneratuta; begiradena, adibidez... Ez dakit esaten egoera bakarra, bortitza izan dena. Indarkeria-maila bat normalizatu egiten da. Baina ziur nago begiratu gaituztela, tabernetako taldetxoak burua jirutzen duela bi neska elkarrekin sartu eta keinu afektiboren bat egiten dutenean. (...) Gizonak baldin badaude, gizonak dira alerta egoteko elementu hori, eta, batez ere, gizonak taldean. Taberna baten kanpoaldean, gizon koadrila bat: horiek dira gehien flipatzen dutenak. Gehiago biratu izan dira gizon helduak; aldagaia izan daiteke gizon heldua izatea (...). Ikasten duzu identifikatzen egoera baten aurrean zer gertatzen den, eta oso automatikoa bihurtzen da» (B002).

«Gaur-gaurkoz, bikotekide maskulino batekin harremana izateak gauzak errazten ditu. Nire bikotekidea emakumea zen garaian, egoerak askoz ere galgarriagoak ziren, jakinda leku askotan ezin gintezkeela afektiboki agertu» (Inkestetan, emakume bisexuala).

Hain zuzen ere, auto-zentsura hori ez da doakoa eta pertsona hauek gorputz eta bizitzetan baditu ondorioak. Antzietate soziala, normaltasunez sozializatzeko arazoak eta espresio defizita bezalako kontaktak errepikakorra da jasotako testigantzetan:

«Nire izateko era mugatzea galera oso handia izan da, batzuetan nire burua politikoki zuzena izatean saiatzen ikusten dut, hau da, heterosexualitate zapaltzailearen

parametroetan mugituz. Adibidez, ibiltzen nabilenean mutil bat begiratzea saihesten dut, ezkutuan egiten dut.» (G004).

«Ez dut ia bizitza sozialik, oso zaila da nik jendea ezagutzea. Hemen jendea itxiegia da, nire herrialdean errazago zen.» (G004).

Pertsona gazteenek onartu dutenez, oraindik ez dago euren burua lasai ikusarazi ahal izateko segurtasun handiko testuingururik, baina eraso fisiko zuzenen arriskua ez da altua; pertsona helduagoek, bestalde, ez dute uste indarkeria zuzenaren arriskua gutxiagotu egin denik, baizik eta hori disolbatu egin dela, «jada ez baitira zuri ezer egitera ausartzen, baina auzitan jartzea gauza bera da» [L006]. Batzuek eta besteek, aurrerago ikusiko dugun moduan, ikusgaitasuna eta kalearen okupazio disidentea sustatuko dituzten politika publikoak eskatzen dituzte.

LGTBI SEGURTASUNAREN BILA

Ez Ertzain-etxean, ezta Erreterriako Udaltzaingoarenean ere, ez da jaso eraso LGTBIfobikoen inguruko salaketarik azken urteotan. Aldiz, polizia-gorputzen inguruko pertzepzioa ez da oso ona, batik bat polizia autonomikoaren kasuan. Hala, gisa honetako erreferentziak ohikoak izan dira: «Ez dut uste gai hauek kudeatzen dakitenik», «Ez nieke deituko eraso baten aurrean» eta «Ez dute inolako formaziorik». Hain zuzen ere, Erreterriako poliziak berak ere onartzen du presetakuntza-gabezia:

«Ez dugu arlo horretako prestakuntza berezirik jaso. Hemen, Arkautetik etortzen direnean, harrera-prestakuntza bat egiten dugu, orokorra, baina ondo legoke presetakuntza espezifiko bat egitea. Egia esanda, beharko genuke» (Erreterriako Poliziaren arduraduna)

Salaketarik jaso ez bada ere, badira ikerketa honetako hainbat kide askotariko eraso LGTBIfobikoak jasan ondoren polizia-etxera bertaratu direnak. Polizia-etxeko agenteek, ordea, ez dituzte salaketa horiek gorrotodeltu gisa jaso, falta arin gisa baizik. Errealitate horrek babesgabetasun larrian uzten du LGBTI biztanleria:

«Nik behin baino gehiagotan lagundu behar izan dut komisariara erasotua izan den jendea, seguru sentitzen ez zirelako eta ni ere ez nintzelako fio bertako agenteek egoki artatuko zituztenik» (G004)

Transten kasuan, ez dago berena sentitzen duten izenarekin deitzera behartzen duen inongo barne-arau zuzentzailerik. Hala, agente bakoitzaren esku gelditzen da pertsonak nahi duen izena edo nortasun-agiriko izen ofiziala erabiltzea, eta, beraz, modu horretan, berriro ere diskriminazio transfoboa geratzen da agerian.

Parte-hartzaileek aditzera eman duten babesgabetasun-sentimendu horren ondorioa izan daiteke poliziarekiko mesfidantza agerikoa, eta, gainera, areagotu egiten da LGBTI kolektiboak edota pertsonak erasoak jasan dituzten kideen segurtasuna bermatzeko subjektu bilakatzeko arriskua. Erakundeen ardura da zeregin hori, eta, mugimenduek bere egitea ekiditeko, segurtasun-kontuei buruzko zenbait proposamen marraztu dituzte parte-hartzaileek:

Lehenik eta behin, Sexu-aniztasunaren eta genero-identitatearen inguruko derrigorrezko prestakuntza espezifikoak herriko poliziakide guztientzat. Baita, LGBTI pertsonak artatzeko derrigorrezko barne-protokoloa, polizia-etxean bertan edota kaleko esku-hartzeetan erabiltzekoa. Halaber, beste atal batzuetara eta gizarte-zerbitzuen arreta-guneetara hedagarria izateaz gain, maiztasunez ebaluatuko den protokoloa izan dadila.

Bigarrenik, eraso LGTBIfobikoak artatzeko udal-telefonoa martxan jartzea, jasandako erasoen berri emateko edota

informazioa eskatzeko aukera eskainiko duena. 24 orduz erabilgarri egongo den telefonoa izateaz gain, herri-mugimendurekin koordinatutako zerbitzua izan dadila. Telefono horrek eraso matxisten telefono-zerbitzuaren antzeko eginkizuna izango luke.

Hirugarrenik, LGTBI mapa sortzeko ideia agertzen da, honako hauek bilduko dituena: alde batetik, segurtasun-gabezia dela-eta, gomendagarriak ez diren tokiak, eta, bestetik, LGTBI komunitatearentzat seguruak diren gune/establezimendu eta lekuak. Mapa hauek, mugimendu feministak aspalditik, begirada heteropatriarkal batetik eraikitako hirietan dauden areriotasunak identifikatzeko erabilitako erramintak dira. Emakumeentzako seguruak ez diren espazio hauen identifikazioa burutu ondoren, espazio hauek eraldatu eta emakumeentzako toki bizigarri bilakatzeko eratzten dira. Mapa hauek, ez dira logika liberal batetik sortzen, espazioaren ezagutzaren bidean osaturiko prozesu kolektiboaren bidez baizik. Beraz, garrantzizkoa da prozesu parte-hartzaile hauek askatasun eta plazeretik abiatutako eraldaketa sustatzea eta, ez materiala ez den segurtasun eza horretatik.

Bide honetan, laugarrenik, aipaturiko mapako toki ez-seguruetan, segurtasun-falta hori desagerrarazi edo gutxituko duten hirigintza-ekintza zehatzak martxan jartzea. Hala nola, cruising-a egiten den tokietan argiztapena, kartel informatzaileak eta zaborrontziak jartzea proposatu da.

Bostgarrenik, Erreteriarira iristen diren LGTBI migratzaileei edota errefuxiatuei harrera egiteko, oinarritzko informazioa izango duen eta hainbat hizkuntzatan idatzita egongo den gida sortzea. Azkenik, LGTBI behatokia sortzea, komunitatearen errealitatea era sistematiko eta egonkor batean sistematizatu eta kuantifikatzea helburu izango duena.

AUZOTASUN BIZIGARRIEN ALDE

Espazio publikoa aldi berean arriskutsua eta subertsiboa izan badaiteke ere, batzuek zein besteek ez dute era homogineoan erabiltzen. Partaideen **% 93k** herriaren erdigunean askatasun handiagoz ikusarazten dute euren burua, periferiako auzoetan baino, eta **% 76k** onartzen dute sexu-orientazioa ezkututzen dutela bizileku dituzten auzoetan, jasan dezaketen epaiketaren beldur. Beraun eta Galtzaraborda auzoak identifikatu dira errealitate hori bortitzen bizitzen den auzo gisa:


«Egun, nolabaiteko lasaitasuna sentitzen dut, baina hemen baino ez —Alde Zaharrari egiten dio erreferentzia—. Auzoetan beste kontu bat da; han konplexuagoa da afektuzko jarrerak izatea. Periferiako jendeak gurekin oso gogorra izaten jarraitzen du: presio handia dago. Endogamikoa izanda, ez da ohikoa bi mutil kaletik paseatzen ikustea. LGTBI pertsonok erdialdean ikusarazten dugu gure identitatea. Seguruagoa da» (G004)

Erreteriarako periferian agerikoa den askatasun-gabezia hori gutxitzeko eta auzo horiek LGTBI herritarrentzat eremu bizigarri bilakatzeko, hainbat proposamen zehatz azaldu dira:

Ikusgaitasuna helburu duten ekimenak deszentralizatzea, gatazkatsuagoak diren auzoetara zabalduz; LGTBI bizilagunei ongietorria ematen dieten kartelak eta pegatinak jartzea lokaletan, eta hainbat tailer eta «prestakuntza-eskola» eskaintzea auzo-elkarteetan, pentsionisten guneetan edota kirol-elkarteetan.

Komunitatearen eraketa ez da espazio publikoaren erabilera hutsetik sortzen; auzokideekin sortzen diren elkargune zehatzak ere eremu pribilegiatua dira bizikidetzaren eta komunitate-sareak sortzeko. Etxean gertatzen dena, etxe

LGTBI pertsonak bizi diren auzoak



barruan geratzen da argudio patriarkalaren izenean, ohikoa izaten da aipaturiko espazioak ahaztea, baina bizitzaren sostengurako ezinbestekoak dira bai etxebizitza, bai bertako bizimodua. Honela, ErreferenteEkinen parte hartu duten pertsonen kezka nagusietakoa da etxebizitza bat eskuratu ahal izatea, prezio altuengatik eta etxearen beraren antolamenduagatik, bereziki.

«Etxebizitza gehienak familia nuklearretan bizitzeko pentsaturik daude. Eta zurea ez bada familia heterosexual baten eredu? Irtenbidea da beste pertsona batzuekin partekatu behar izatea –eta jada ez dugu horretarako adinik–, edo, etxeen banaketa-ereduagatik, etengabe zure bizikidetzaren egokiturik ez daudela gogorarazten dizuten etxeetan bizi behar duzu». (LGTBI eztabaida taldea: heldutasuna)

Aldiz, diagnostikoaren osieran parte hartu duten migratzaileen edota errefuxiatuen **% 83k** baieztatu dute Errenteriara bizitzera etortzeko arrazoi nagusietako bat etxebizitzaren prezioa izan dela; lehen Donostian bizi ziren, eta Errenterian prezioak jasangarriagoak dira. Hala ere, aurreiritzi arrazistek etxebizitza horietarako sarbidea eta bertan egonkortasuna lortzeko aukerak zailtzen dizkiete.

«Hemen etxebizitza Donostian baino merkeagoa da, eta horregatik etorri nintzen; hala ere, eguneroko bizitza Donostian egiten jarraitzen dut, hemen jendea itxiegia delako. Etxea dut, baina ez dut bizitzarik egiten» (L009)

«Ni migratzailea izateak axola ez zion emakume bat topatu nuelako etorri nintzen hona, baina, hori baino lehen, etxebizitza asko bisitatu ditut. Jendeak ez die migratzaileei etxerik alokatu nahi. Errenterian oso ondo nongoen, baina ez nuen lanik, eta alde egin behar izan dut. Pisua berriro bilatu, horrek duen zailtasunarekin, eta zerotik hasi. Hori bai, ahal dudan guztietan joaten naiz Errenteriara, eguna pasatzera. Asko botatzen dut faltan» (G005)

Genero-estereotipoek, arau heterosexualaren indarrak eta familia-ereduen aniztasunaren inguruko ezagutza-faltak eskaileretako eta bizilagunen arteko zurrumurruen erdigune bilakatzen dituzte LGBTI pertsonak eta euren familiak.

«Hasieran, bizilagunen artean begiradak eta epaiketak sumatzen nituen. Lehenik, bollera-bikote bat eta, orain, seme trans bat. Bazegoen bollerak ginelako haur trans bat nahi genuela pentsatzen zuenik. Horrek min handia ematen du» (LT001)

«Umearekin bakarrik bizi nintzanean, batzuetan entzuten nuen: ‘Honek homosexuala izan behar du, arropa zabaltzen duelako, erosketak egiten dituelako...’ Bikotekidearekin bizi nintzanean, ordea, bizilagunek esaten zidaten: ‘Zein ezberdinak zareten, anaiak izateko’» (G003)

Ez dago, beraz, zalantzarik: bizikidetzaren errealitate horren aurrean, premiazkoa da familiaren inguruan dagoen iruditeria zabaltzeko planak eta ekintzak auzoetan abiaraztea. Besteak beste, proposamen zehatz hauek egin dira: LGBTBI pertsonentzako etxebizitza komunitarioak sustatzea, orain gutxi gazteentzat martxan jarri diren antzekoak, edota aniztasun-sailetik sustatzen diren programetan familia-ereduen inguruko lan-lerro bat txertatzea..

Extebizitzaren gaiaren inguruan, badira kolektibo ahulenekin zerikusi zuzena duten beste bi osagai aipagarri: heldua izatea eta bazterketa soziala pairatzeko arriskua edukitzea. Komunitate helduenak ardura oso handia azaldu du bere zahartze-prozesuaren nondik norakoei dagokienez, bai eta euren orientazioa askatasunez bizi ahal izango duten zalantzaren inguruan ere. Heldutasunaren inguruko eztabaida-taldean, denek egin dute bat ideia berean: zenbat eta helduago izan, gizarteak orduan eta gehiago kokatzen zaitu parametro heterosexuaren barruan. Armairuari buelta ematen zaio, eta urte luzeetan lortutako ikusgaitasuna edota normalizazioa galdu egiten da neurri batean.

Horren ondorioz, helduen egoitzak eta zentroak ez dira espazio seguruak haientzat: «Ez daude guretzat pentsatuta», eta «agian, geure burua defendatzea ezinezkoa izango den indarkeria-egoera batekin egingo dugu topo».

«Nik ez dut neure burua egoera horretan ikusten, zainduko nauten langileengandik, beste erabiltzaileengandik edota euren familiengandik homofobia jasan dezakedan

egoitza batean» (LGBTBIren eta heldutasunaren inguruko eztabaida-taldea).

Bada, etorkizunean ager daitezkeen askotariko egoerei aurrea hartzeko, zahartze diskriminatzailea saihesteko eta hainbat alternatiba instituzional diseinatzen joateko, alde biko lantalde bat sortzea proposatu da; bertan, alde batetik, zenbait teknikarik hartuko lukete parte (hirigintza- eta berdintasun-arlokoek, bereziki), eta, bestetik, LGBTBI komunitateko pertsona helduek (7) hartuko lukete parte, idazkari tekniko batekin eta prozesua gidatuko duen hirugarren batekin batera.

Extebizitzarekin loturik agertzen den beste elementu bat gizarte-bazterketa pairatzen duten LGBTBI pertsonena da. Batzuetan, gainera, familiako kideek haien sexu-orientazioa edota identitatea gaitzesten dute.

Horrelakoetarako, ez da proposamen zehatzik egin, baina interesgarria litzateke prekaritate ekonomikoan nahiz sozialean dauden LGBTBI pertsonak kontuan hartzea eta etxebizitza-arloko diru-laguntzak jasotzeko aukera duten subjektutzat hartzea horiek (8).

7 / Egun, badira udal-kudeaketa honen bide inspiratzaileak garri suertatu daitezkeen hainbat ekimen. Informazio gehiagorako <http://www.fundacion26d.org/>

8 / Ideia hau, Vitoria-Gasteiz hirian egindako LGBTBI biztanleriaren Desirak Plazara diagnostikoan agertzen da (037 orrialdea).

05

AiSiA



AISIA

Gustuko ditugun eta plazera ematen diguten jarduerak egitera bideratzen dugun denbora da aisia. Bada horretatik asko duenik, eta oso gutxi duenik ere bai. Baina, espazio publikoarekin gertatzen den moduan, aisia ahalduzailerik ez ezik, arriskutsua ere izan daiteke arau heterosexualetik at eraikitzen den horrentzat. Aisiaren praktika indibidualki egin daiteke, irakurriz, zinemara joanez edo igeri eginez; baita kolektiboki ere, lagunekin pote batzuk hartzera joanez edo antzerkia nahiz zunba egitera joanez.

Oro har, aisia testuinguru atsegina da diagnostikoko parte-hartzaile gehienentzat, eta ez dute arazo handirik topatzen testuinguru horretan. Analizatutako eremuen artean, aisia askatzaileena dela uste dute parte-hartzaileek. Aisia gure denbora librean egiteko aukeratzen dugun praktika-sorta gisa identifikatzen dugulako gerta daiteke hori eta, beraz, praktika horiek mingarriak badira, haiei uko egin diezaiekegulako. Adibidez, pertsona batek futbol-talde batean jokatzeko badu eta komentario homofoboak etengabekoak badira, taldez alda dezake edo futboleko jokatzeari utzi. Hori bai: erabakiak hartzeko gaitasuna edukitzeak ez du esan nahi aurreiritzi LGBTIfobikoek sarbidean nahi gozamenean eragiten ez dutenik.

Are, elkarrizketetan ikus daiteke LGBTI komunitatearen baitan mugikortasun-maila handia dagoela; hau da, nahi duten aisialdia edukitzeko mugitzen dira. Gehienek hiriburura (Donostia) jotzen dute, baina beste hiri batzuekin ere badituzte harremanak (Madril etaartzelona), baita hurbilago ere (Pasaia, Irun, Bilbo, etab.).

«Ahal dudan guztietanartzelona joaten naiz, hemen ez baitago egiteko askorik eta ito egiten naizela sentitzen baitut. Han gauza gehiago dago. Asko nabaritzen dut Erreteriatik atera gabe denbora asko

daramadanean; beste umore bat izan ohi dut, hemen dena baita heterosexuala» (L003)

«Askok mugitzen naiz; maritxuak, orokorrean, asko mugitzen gara: Lapurdira, Nafarroara, Gipuzkoara...» (G002)

Behartutako mugikortasun hori elkartzeko espazioen gabeziarekin lotuta dago, eta ez herrian kiderik ez aurkitzearekin. Parte-hartzaile askok onartu dute Erreteriatik kanpo herriko LGBTI pertsonekin topo egin dutela, ihes egiten baitute, eurentzako osasungarria den aisia aurkitzeko.

«Iparraldera joaten nintzen jendea ezagutzera, edo Donostiara ere bai; eta, bertan, herriko jende askorekin topatzen nintzen» (G008).

Hala ere, herrian bertan egiten den aisiaren inguruan sakontzen hasiz gero, parte-hartzaileen **% 63** LGBTI kolektiboko kide izateagatik inoiz baztertuta, estigmatizatuta eta/edo diskriminatuta sentitu direla ondorioztatzen dugu. Zentzu horretan, hiru dira potentzialki arriskutsutzat jo dituzten espazioak, diskriminazio gehien horietan jasan dituztelako:

1 / Kirol-eremuak

2 / Festa(k) eta gaua

3 / Jai zehatzak: Madalenak, auzoetako jaiak, inauteriak, etab.

MASKULINITATE ITOGARRI GUTXIAGO ETA LGTBI IZERDI GEHIAGO

Kirolari dagokionez, bizipenak bestelakoak dira. Lesbiana eta emakume bisexual askorentzat, adibidez, zenbait kirol egitea (hala nola, futbola edo eskubaloia) askatasunaren sinonimoa da; hala, beste lesbiana batzuk ezagutzeko eta lasaitasunez euren burua erakutsi ahal izateko oasi bihurtzen da taldea:

«Futbol-talde batean jolasten nuen, eta, horren harira, eskubaloi-taldean jolasten zuten beste lesbiana batzuk ezagutu genituen, eta batzuen eta besteen artean partidak egiten genituen. Gero dantzaldiak egiten genituen, bazkariak... Denok lesbianak ginen sare bat sortzen hasi ginen» (L006)

Arnasguneak badira ere, kanpotik datozen begirada matxistek sistematikoki gogorarazten diete eskusiboki gizonei zuzendutako gune bat hartzen ari direla. Batez ere, futbol-taldeetako kide gizonezkoengandik nabaritzen dute hori, euren komentario diskriminatzaileen-gatik, adibidez. Begirada matxistari, ordea, begirada heterosexuala gehitu behar zaio, zeinak bi emakumeren lotura afektiboa sexualizatzen eta erotizatzen duen, gizonezkoen plazererako bakarrik:

«Kanpoko begiradak barnekoak baino gehiago sentitzen dituzu, taldearen barruan babestuta eta lagunduta sentitzen baitzara. Zer egingo ote dute hauek dutxan? bezalako komentarioak dira. Komentario horiek beti datoz mutilengandik, eta min handia ematen dute» (X001)

Gizon homosexual eta bisexualen kasuan egoera oso desberdina da. Parte-hartzaileen % 93k adierazi dute kirol kolektiboetan (futbolean, eskubaloian edo saskibaloian, esaterako) homosexuala izatea eta zeure burua hala ikusaraztea arriskutsua dela, identifikatzen baitute

maskulinitate hermetikoak beste batzuetan baino balio handiagoa duela kirol horietan [9].

«Beti iruditu zait leku oso arriskutsua. Futbolean gizonezkoak oso matxoak dira, eta hala erakutsi behar dute. Ez da marikentzako leku ona» (G004)

Bi errealitate horietan errepikatzen diren bi ideia ondoriozta ditzakegu: batetik, gaur egun kirola genero-binarismoa betikotzeko espazio pribilegiatua dela eta, bestetik, kirolaren gainean begirada maskulinizatzaile bat badela, emakumeak baztertzen dituen eta gizonezkoen gatazkatsua den genero-erreprodukzio zehatz bat eskatzen diena.

Horregatik, gisa honetako udal-kanpainak egitea proposatu da: kirolaren maskulinizazioaren ideiarekin apurtzea helburu izango duten kanpainak eta kirolariei zein ikusleei zuzendutako sexu-dibertsitatearen inguruko prestakuntza. Udalaren lan hori kirol-taldeen bitartez egin badaiteke ere, eskoletatik eta eskola-kiroletik egiteko beharra nabarmendu da; esaterako, kirol desberdin gehiagori tokia eginez edo txapelketa mistoak sustatuz egin liteke.

Trans pertsonen kasuan, kirol-jarduerak, kolektiboki edo indibidualki egin gorabehera, arrisku-, diskriminazio- eta indarkeria-gune potentzialak dira. Genero-bereizketak, hain da sustraikoa, haurtzarotik bertatik zailtzen du kirola egitea:

«Gure semeak eskola-kirolean parte hartzen du orain, baina zer gertatuko da gero? Mutilen taldera joango da mutil bat delako, baina gerta daiteke arazoak jartzea, ezin federatu izatea, deserosoa izatea, eta litekeena da hainbeste trabaren aurrean, azkenean, kirol hori uztea» (LT002)

9 / Identifikatu dutenez, errugbia da homosexualitatea normalizatuta daukan kirol kolektibo bakarra eta gizonezko disidente sexualen arteko topalekua.

Zailtasun horri, kirol-instalazioekin lotutako beste bat gehitu diote transek: aldagelen banaketa binarioa deserosoa eta arazotsua delakoan daude, eta, zenbait kasutan, espazio horiek erabiltzeari uko egitea dakar binarismo horrek. Legez transek aldagelak sentitzen duten sexuaren arabera erabil baditzaizkete ere, parte-hartzaileen esperientziak erakutsi du espazio hori ez dutela segurutzat hartzen. Horren aurrean, generorik gabeko aldagelak egitea proposatu da, denek erabil ditzaten. Ideia horrek, ordea, ez du komunitate osoaren kontsentsua, batez ere cis emakumeei dagokienean, arriskutsutzat jotzen baitute gizonezko cisekin aldagelak partekatzea.

Ilido horretan, trans gaztetxoek familiarteko batzuek proposatu dute generorik gabeko hirugarren aldagela egitea. Hala, emakumeentzako aldagela bat, gizonentzako beste aldagela bat eta binarioak ez diren pertsonentzako beste aldagela bat egongo lirateke. Komunen kasuan, aldiz, bada binarismoa hausteko kontsentsua, eta udalaren gune guztietan binarioak ez diren komunak jartzeko apustua egiten da.

HETEROEKIN DANTZAN?

Asteburuetakoa gauetan lagunekin festara, dantza egitera, ongi pasatzera edo jendea ezagutzera ateratzea da aisialdiko jardura ohikoena. Diagnostiko honetan parte hartu dutenek onartu dute aisia eta gaua tabernetan arriskutsuak direla eta modu selektiboan egiten duten zerbait dela. Hau da, afaltzera edo dantza egitera zein tabernatarara joan behar duten erabakitzeke garaian, euren burua erakutsi ahal izateko segurtasuna izateak pisu handiagoa izan dezake, gustuko musikak edo gertutasunak baino. Hala, LGTBI komunitatearentzat, erreferentzialtasun positiboa edo negatiboa duten tabernak daude:

«Gure tabernara LGTBI komunitateko jende asko etortzen da, badakitelako hemen seguru daudela, ez dugula jarrera homofoborik onartuko eta, halakorik egotekotan, bezeroari joateko gonbita egingo diogula. Inoiz egin izan dugu, geu ere komunitate horren parte garelako» (Eztabaida-taldea: Aisialdia)

Beraz, badira taberna atseginagoak edo oldarkorrakoak. Bigarrenek, gehienetan, «dinamika heterosexuala» edukitzen dute; hots, heterosexualitatearen inguruko aurreiritzi latente bat izan ohi dute, eta, horren ondorioz, LGTBI pertsonen eurentzako espazioa ez dela sentitzen dute. Berez, ez dute gertakari edo jarrera diskriminatzaile zehatzik hautematen, baina bai giro arraroak, eta, horrenbestez, batzuek leku horietatik espazio atseginagoen bila «ihes» egitea erabakitzen duten bitartean, beste batzuek nahiago izaten dute gaua eta gaueko aisia ez erabili:

«Tabernak espazio oldarkorrek dira os-tiraletan, larunbatetan edo pintxo-pote egunetan. Leku horietatik joan egiten naiz: tabernetatik joan egiten naiz. Une

batean, dominantea hain izaten da hetero- eta matxista, nazka ematen du. Beti egon behar duzu 40 begi eta belarrirekin adi, eta horrek baldintzatuta sentiarazten nau. Oso zaila da» (G004)

Hain zuzen ere, giro heterosexual horrek areagotzen du eraso LGBTIfobiko bat jasateko arriskua:

«Nire kideak beste taberna batera joan ziren, eta, une hartan, bakarrik nengoen tabernan. Probokatzailerak jantzi nintzen, horretarako gogoia nuelako, eta, handik ateratzeko orduan, mutil batek eraso egin zidan berarekin sexurik izan nahi ez nuelako. Marikoi bat nintzela esanez deiadar egin zidan, eskerrak eman beharko nizkiokela bera bezalako matxo batek nirekin maitemindu nahi zuelako... Denbora luzez eztabaidan egon ginen, eta, azkenean, tabernako jabeak handik botatu zuen. Oso babestuta sentitu nintzen» (T002)

Bada, berriro agertu da erasoak kudeatzen dituen pertsonaren edo halakoak gertatzen diren tabernetan lan egiten duen pertsonaren garrantzia. Aisiaren inguruko eztabaida-taldean, tabernariekin lan egiteko beharra nabarmendu da, dinamika heterosexualak aldatzeko eta espazio mistoak espazio seguru bihurtzeko.

Zentzu horretan, sexu-identitate eta -dibertsitatearen inguruko udal-programa bat sortzea planteatu da. Prozesu horren amaieran, eraso LGBTIfobikoen aurrean tabernariei nola jokatu adieraziko dien tresna izango den protokolo bat (dekalogo antzerako bat) egingo litzateke. Aldi berean, LGBTI herritarrek segurutzat jotzen dituzten tabernetan jartzeko bereizgarriak sortzea ere aipatu da, puntu morearen gisara. Gainera, taberna guztiei honelako mezua duten plakak banatzea eskatu diote Udalarari: «Leku honetan, LGBTI ikusgaitasuna bultzatzen da, eta lekua uztera gonbidatuko dugu

sexu-aniztasuna normaltasunez bizitzeko prest ez dagoen eta horretarako askatasuna mugatzen duen pertsona oro». Tabernetan aisia etengabe aldatzen denez, ErreferenteEkinen parte hartzen duten tabernari askok proposatu dute Udalarekin etengabeko komunikazioa ahalbidetuko duen espazio formal bat sortzea, egoera zein den eguneratu ahal izateko eta neurri berriak diseinatu ahal izateko. Tabernariena ordutegi oso konplikatua dituen sektorea dela kontuan hartuta, horien ordutegietara egokituko den eta malgua izango den koordinazio-espazio bat diseinatu beharko litzateke [10].

Erreterriak, egun, ez du LGBTI pertsonentzat pentsatuta dagoen taberna edo lekurik. Diagnostikoan parte hartu dutenen artean etengabe agertu den errealitatea da hori, eta nabarmendu dute lehen bazirela horrelako guneak eta oso eraginkorrak izan zirela mugimendua antolatuta, aisiaz libreki gozatu eta ligatzeko garaian:

«Baziren lasai egon, gure festak egin eta gure filmak proiektatzeko tokiak» (G004)

«Lehen lesbianek presentzia handia zuten kalean. Gogoratzen dut ostiraletan ateratzen zirela kuadrillan eta festak egiten zituztela. Egun, hori galdu egin da» (G002)

Arrazoi askorengatik jotzen zen gune horietara, baina, beste hainbaten artean, ligatzeko ere egiten zen:

«Ez da batere erraza Erreterrian ligatzea, ez baitago elkar ezagutzeko espazio espezifikorik. Eta, ni bezala, kanpoko bazara, are zailagoa da, ez baitakizu non ezagutu jende homosexuala. Niri sei hilabete kostatu zitzaidan. Inoiz ligatu dut

10 / Adibide gisa jarri zen bileretara joateko zailtasuna, eta eraginkorragoa ikusi zen Udalak berak tabernetara bisitak egitea, koordinazio-lana egiteko.

11 / Komunitate homosexualak gehien erabiltzen duen aplikazioa da.

autobus geltoki batean, baina, zein zaila den ikusita, dena Grinder bidez egiten dut (11)»(G005)

Homosexual edo gizon bisexual gisa identifikatzen diren parte-hartzaileen % 93k onartu dute ligatzeko mugikorrek aplikazioak erabili izana, eta, aldiz, emakume lesbiana, bisexual edo transen % 12k baino ez dute erabiltzen. Diagnostikoan parte hartu duten hainbatek formatu berri horien gaineko ardura adierazi dute, ligatzea eta sexu-harremanak izatea errazten badute ere, sexu-disidentziatik espazio publikoa konkistatu eta hori erabilgarri egiteko beharrari indarra kentzen diotelakoan. Emakume lesbiana eta bisexualen artean, ez da beldur hori adierazi, eta mugimendu feminista identifikatu da euren behar eta eskakizunak garatzeko espazio politiko gisa:

«Lehen, Internet ez egoteak eragiten zuen gu mugitzeko beharra, tokietara joateko beharra, espabilatzeko beharra. Aplikazio horiek espazioa desagertzea sustatu dute, eta, horrekin, gure sare politikoa hautsi da. Ez dago dena galduta: azkar ibili behar dugu, eta alternatiba bat sortu» (G002)

Guztiak bat etorri dira guztiontzako topalekua falta dela azpimarratzeko garaian. Aldiz, *ambienteko taberna* bat izatea positiboa izango ote litzatekeen galdetuta, erantzunak elkarren aurkakoak izan dira. Batzuen iritziz, eskusiboki LGBTI pertsonentzako festa-gune bat egoteak kolektiboaren bazterkeria areagotu lezake, eta ghetto bezala funtzionatuko luke. Beste batzuentzat, berriz, oso lagungarria izango litzateke, bai beste pertsona batzuk ezagutzeko, bai askatasunez ligatu ahal izateko.

Anbienteko tabernen inguruan adostasunik ez badago ere, denak bat datoz Errenteriako LGBTI komunitatearentzako topalekua izango den espazio fisiko bat behar dela esatean, gaur egun komunitatea oso sakabanatuta dagoelako. LGBTI mugimenduak kudea lezakeen udal-


lokal bat uztea aipatu da, edota Emakumeen Etxean ordutegi bat erreserbatzeko aukera egotea [astean behin, hainbat ordutan]. Formatua dena delakoa izanda ere, erreferente eta katalizatzaile gisa funtzionatuko duen gunea sortzea da eskaera zehatza.

Herriko edo auzoetako festak edo bestelako festa-egun bereziak ere arriskutsutzat hartzen dira, erasoak areagotu ditzaketen jende-pilaketengatik. Parte-hartzaileen % 77k adierazi dute ez direla libre sentitzen gisa horretako ospakizunetan. Eguneroko gaueko aisialdian agertzen den heterosexualizazio-logika bera agertzen dela esanenezake, baina gairik gaitasunarekin lotutako kanpaina espezifikoa abiatzea eskatu da, bai eta –orain artean egon ez den– LGBTI protokoloa indartzea eta mugimendua, udaltzaingoa eta berdintasunerako zerbitzua koordinatzea ere, gerta litezkeen eraso LGBTIfobikoak kudeatzeari begira.

Horregatik, jaietan ikusgaitasunarekin lotutako kanpaina espezifikoa abiatzea eskatu da, bai eta –orain artean egon ez den– LGBTI protokoloa indartzea eta mugimendua, udaltzaingoa eta berdintasunerako zerbitzua koordinatzea ere, gerta litezkeen eraso LGBTIfobikoak kudeatzeari begira.

06

SEXILIOA



ERRETERIA



ONGI ETORRI · BIENVENIDO/A
WELCOME · BIENVENUE
BENVINGUT/DA · BENVIDO/A
مرحبا · ЛАСКАВО ПРОСИМО




SEXILIOA

Aisialdiaren atalean aipatu dugun mugimendu-maila altu hori, hein handi batean, Manolo Guzman soziologo puertorricarrak sexilio [12] izendatu duen errealitatea da; hau da, heterosexualak ez diren pertsonak beren sexu-identitatea dela-eta jazarpena jasateagatik haien auzo, komunitate edota herrialdetik alde egitera behartuta daudenean gertatzen den fenomeno.

Erreneriako bizilagun batzuek Erreneria ez den gaurko bizilekutik hartu dute parte diagnostikoan, eta herrira berriro itzuliko ez direla baieztatu dute, ez baitute ingurune asketzat jotzen. Hala ere, aldi berean, sexu-joera edo -identitateagatik herio-mehatxuak jaso eta jatorrizko herrialdeetatik ihes egin behar izan duten LGBTI aktibistentzako harrera-tokia da Erreneria.

Parte-hartzaileen **% 65** herritik kanpo bizi izan da, eta **% 35** beti bizi izan da bertan. Bada, horrek adierazten digunez, LGBTI komunitatearen kopuru handi batek, aldi baterako bada ere, jaiolekutik aldendu beharra dauka. Bestetik, Erreneriara bertan finkatzeko asmoz etortzen diren pertsonen **% 58** inguruko herrietakoak dira (adibidez, Irungoak edo Pasaiaakoak), eta Erreneria uzten dutenen arrazoi berberengatik uzten dute beren herria: askatasuna bilatzeko.

Noizbait Erreneriatik kanpo bizi izan duzu?



12 / Sexilio hitzaren ikerketa sakonago bat burutzeko ikusi: Martínez, Yolanda (2011): Sexilios: Hacia una nueva poética de la erótica caribeña, Universidad de Salamanca

HERRI TXIKI, INFERNU HANDI

Sexilioa unean-unekoa eta estrategikoa izan daiteke (ligatzeko egiten dena, adibidez), baina baita behin betikoa ere. Bigarren kasu horretan, badira Erreteriarekin lotura emozional oro hautsi duten parte-hartzaileak, herriaren parte sentitzeari utzi diotenak. Sexilioa egin duten pertsonen artean, bi joera nagusi atzeman daitezke: batzuk prozesu migratzailea hasi ondoren [jada helmugako herrian daudenean] konturatzen dira, edo kontzientziatzen, sexu-identitateak edo -joerak eragin duela lekualdaketa; beste batzuek, ordea, jatorrizko bizilekuan alde aurretik erabakitzen dute behartutako migrazio-prozesuari ekitea. Lehenengo kasuan, ez da hain zaila izaten Erreteriarara itzuli eta jaiolekuarekin adiskidetzea; bigarren kasuan, baina, itzulera gatazkat-suagoa izaten da, «utzi zuten Erreteriarekiko» deluak indarrean jarraitzen du, eta bigarren migrazio-fase baterako aukera irekita egoten da.

«Granadan nengoenean hasi nintzen lehen aldiz neska batengandik zerbait sentitzen. Erreterian nengoenean, ez nuen desio horren kontzientziarik, edo ukatu egiten nuen. Hara joan arte, ez nintzen nire orientazioaren jakitun izan» (B002)

«Bartzelonan, aske sentitzen nintzen; nire desioa askatasunez bizi nuen. Joan aurretik, banekien Erreterian baino aukera gehiago izango nituela nire desiorako, eta, orain, hemen egonda, batzuetan hara bueltatzeko nahia sortzen zait. Tramankuluak hartu eta joan. Itogarria da Erreteria» (L003)

Sexilioa hautatu duten pertsona guztiengan agertzen dira itolarria eta epaiekiko beldurra. Herriak infernu txiki batek bezala funtzionatzen du [esaera zaharrak dioen bezala, *herri txiki, infernu handi*], pertsonen mugimenduak kontrolatzen baititu, eta desireri diziplina ezartzen. Kanpo-begirada kolektibo bat da, tradizio kulturalaren

bidez erroturikoa, eta, horren bidez, idiosinkrasia oso zehatza sortzen da herrian. Idiosinkrasia horretan, gehienbat heterosexuala den hori jotzen da ontzat: horixe da duina eta onartua, eta hortik kanpoko oro da txarra, mespretxagarria eta kanpoko. Hala, dualtasun horren ondorioz, pertsona batzuek ezkutuan bizitzen dituzte beren desirak, eta, are, batzuei ez zaie tokirik ematen herrian:

«Oso txikia da, eta denok ezagutzen dugu elkar. Leku eta jende garrantzitsu batzuekin, ebaluatuta sentitzen zara. Ingalaterrara joateak mugarria jarri zuen. Kurioso da: han ere oso herri txikian bizi nintzen, baina, halere, jendeak ez zizun kaletik begiratzen, eta aske sentitzen nintzen. Adibidez, nahi nuen modura hasi nintzen janzten, eta, juergan norbaitekin ligatu nahi banuen, erdian egiten nuen. Erreterian, bikotekidea bazen bakarrik egiten nuen hori, eta mozkortuta egon behar nuen! Erreteria oso itxia da. Oraindik ere jarrera asko aldatu behar dira» (X001)

Euskal kulturen oso erroturik dauden instituzio sozialek [hala nola, kuadrillak eta familia politikoak] ezartzen duten diziplinaren ondorioz, estutasun-sentsazioa are-agotu egin daiteke. Errealitate horren aurrean, beraz, instituzio horiekiko lotura hautsi eta sexu-identitatea nahiz -joera ardatz dituzten afektuzko sare berriak eraiki behar izaten dituzte LGTBI pertsonak. Are, sare batzuk politikan eragiteko antolatzen dira:

«16 urterekin, kuadrillak egurra ematen zidan, matarile al maricón bezalakoekin. Mutil nerabez osatutako kuadrilla zen gurea, eta gaur da eguna ikusten ditudanean zerbait sentitzen dudana» (G001)

«Ni gizonen kuadrillatik alden du nintzen. Erabakia jadanik hartuta nuen, eta neske-

kin ibiltzen hasi nintzen: askoz erosoago sentitzen nintzen» (G002)

Gizon homosexualen testigantzetan soilik agertzen da kuadrillarekiko harreman gatazkatsu hori. Mistoak ez diren kuadrillak (emakumeak bakarrik) edo gehiengo emakumeak diren kuadrillak emakume, lesbiana, bisexual eta transentzako babes-eremu bilakatzen dira, non askatasunez bizi daitezkeen sexu-identitatea eta -joera:

«Nesken kuadrillan, oso babestuta sentitzen nintzen. Jabetze-prozesu bat egon zen, eta normalizatu egin genuen ligatzea; norbait gustuko nuenean, hango festetara joaten ginen. Ni bat gehiago nintzen: dramatismo guztia kentzen genion» (G002)

Ilido horri helduz, cis gizonekin (bereziki, gazteekin) sensibilizazio-programak egiteko ideia agertu da, maskulinitate-ereduak eta maskulinitatearen alternatibak landu ditzaten, eta, bestetik, ikerketa baten bidez kuadrilletan normalizatuta dauden indarkeriazko dinamikak identifikatzeko eta praktika horiek desnaturalizatzeneko flayer-ak edo komunikazio-materiala sortzea proposatu da.

NI BAKARRIK UTZITA JOAN ZINEN

Batzuek migrazio-prozesuei ekiten dieten bitartean, beste batzuk herrian geratzen dira, erresistentzia etengabe. Azken horiengan, bere egunean ontzia utzi zutenekiko nolabaiteko min-sentipenak atzeman daitezke oraindik:

«Aktibismoa kanpotik egin dute batzuek, eta asko haserretzen nintzen prentsaurrekoak herrian ematen zituztenean. Ni ados nago, baina, gero, prentsaurrekoa bukatuta, zu bazoaz herritik. Gu hemen geratzen gara, bakarrik, zuk esan duzunari aurre egiteko. Zu Erreterriakoa zara, baina ez esan nola bizi behar dudan nire etxean; lagundu diezaguzu gure etxean bizitzen. (...) Sentitu dudana da bakarra nintzela, hemen geratutako bakarra nintzela. Ikastetxeko azken bazkarian, adibidez, bi gelakidek esaten zuten bere garaian herrian ezagutu zuten homosexual bakarra ni nintzela, eta horrek oso epaituta sentiarazten zaitu » (G003)

Beste alternatibarik ez zutelako joan ziren lehenengo horiek, askatasunez bizitzeko eta benetako erreferente positiboak edukitzeko modu bakarra baitzen migrazioa.

«Barruan neramatzan gauza asko hezur-mamitu behar nituen; bizi egin behar nituen. Horregatik joan nintzen, sexu-askapenaren bila» (B002)

lhes egin dutenen eta hemen geratu direnen artean sortutako tentsioa desegiteko erreparazio-gune txiki bat sortzea proposatu da (adibidez, ate itxiko tailerrak edota esperientzien inguruko jardunaldiak). Halaber, askotariko lekukotasunak bildu eta dibulgazioko materiala sortzea proposatu da, herrian bertan ere benetako erreferenteak daudela ikus dezaten belaunaldi berriek.

ERRETERIA HARRERA HERRIA

Erreteria ez da soilik bertan jaiotako pertsonen askatasunez bizi ahal izateko ihes egiten duten herri bat; hain zuzen ere, bada sexu-joera edo -identitatea dela-eta jatorrizko herrialdetik ihes egin eta hona etorri denik ere:

«Nire herrialdean, LGTBI arloko GKE batean egiten nuen lan, eta transen errealitateaz arduratzen nintzen batez ere; osasun-arloko eta hiesaren eta sexu-transmisiozko infekzioen eta gaixotasunen prebentzioko teknikaria nintzen. Harriak eta txiza botatzen zizkiguten manifestazioak egiten genituenen. Azkenean, talde antisozial batek mehatxatu egin ninduen, eta nire herrialdetik ihes egin behar izan nuen. Gero, hona iritsi nintzen» (T002)

«Nire herrialdean, zazpi urteko kartzela-zigorarekin zigortzen da homosexualitatea, eta gaya izateagatik hiltzen dute jendea. Ihes egin behar izan nuen, eta honaino iritsi nintzen» (G005)

Beren historia, bizitzak eta jaioterriko borrokak ezezagunak dira Erreterian. Eusko Jaurlaritza da diagnostikoan parte-hartu duten errefuxiatuen erreferentziako administrazioa, eta Udalarekiko harremana eta lotura gutxienekoak dira [13]: ia ez dituzte Udalaren zerbitzuak erabiltzen, eta ez dute erakunde hori jotzen arazoak konpontzeko bitartekotzat.

Zentzu horretan, interesgarria litzateke Udalak LGTBI errefuxiatuei harrera egiteko programa zehatz bat sortzea. Bada, hainbat ardatz izango lituzke: alde batetik, udalerrri berrira egokitzeko dauden zailtasunak arintzeko ekintza zuzenak egongo liriateke (hala nola, harrera-

13 / Parte-hartu duten persona errefuxiatuek CREAR erakundearekin burutu dute beren asilo eskaerarako prozesua. Gehitu da prozesu honetan aholkua ematen dien beste erakunde bat.

gidak edo udal-langileekiko elkarrizketa pertsonalak, premia espezifikoak zein diren jakiteko), eta, bestetik, jatorrizko herrialdeetan jasan duten indarkeria politikoa erreparatzeko ekintza zehatzak egongo liriateke (adibidez, Udalak harrera ofiziala egitea). Halaber, Udalaren diru-laguntza edo zerbitzu jakin batzuk jasotzeko diskriminazio positiboko neurriak txertatu beharko liriateke (besteak beste, etxebizitza eskuratzeko laguntzetan edo euskarako ikastaro trinkoak egiteko beketan).

Pertsona batzuk Eusko Jaurlaritzaren babes-programaren bidez iristen dira herrira; beste batzuk, ordea, bertan kontakturen bat dutelako iristen dira, eta behin Erreterian daudela abiarazten dute asiloa eskatzeko prozesua. Harrera-programa zehatz horren barruan, udal-aholkularitza bat sortu beharko litzateke, ihes eginda iristen diren pertsonen aterpe-eskaera egiteko prozesuan lagundu diezaien, bai informazioa emanez eta dokumentuak izapidetzen lagunduz, bai Udalaren, erakundeen eta asiloa kudeatzen duten entitateen arteko koordinazioa hobetuz.

Parte hartu duten errefuxiatuen % 100ek baieztatu dute bizitzeko toki seguru eta adeitsua aurkitu dutela Erreterian; hala ere, topatu dituzten zailtasun materialen ondorioz, bai eta babesa eskuratzeko prozesuak duen zurruntasunaren ondorioz ere, Erreteriatik urrundu dituen bigarren migrazioa egin behar izan dute, barne-mailakoa. Dena dela, guztiek baieztatu dute herriarekin nolabaiteko lotura edukitzen jarraitzen dutela, eta hortxe egoten dela bertara itzultzeko gogoia.

«Babesa jasotzeko programak hiru fase ditu, eta, orain, Bermeon igaro behar dut bigarrena. Pena handia eman zidan Erreteriatik joan behar izateak, bertan oso ondo nengoelako: lagunak nituen, eta, kafe bat hartzera jaisten nintzenen, jende askok agurtzen ninduen. Itzultzeko gogo handia dut; hau da nire tokia. Baina, prozesua amaitzen denean, lana dudan

tokira joango naiz. Nahiago nuke hori Errenteria balitz!» (T002)

“Lanaldi osoko lana topatu nuen Lasarten. Lanetik ateratzen nintzenerako, ordea, ez zegoen Errenteriara iristeko zerbitzu publikorik, eta hona etorri behar izan nuen bizitzera. Askoz gehiago gustatzen zait Errenteria, eta, libre dudan guztietan, hara joaten naiz egun-pasa. Zoragarria litzateke itzultzea» (G005)

Bizilekua edozein izanda ere Errenteriako Udalak programak irauten dituen hiru urte horietan errefuxiatuen harrera-prozesutik alde egin ez dezala eskatzen du komunitate horrek, eta, bien bitartean, errefuxiatuak –hala nahi badute– prozesua amaitutakoan udalerrira itzultzeko aukerak azter ditzala.

07 HIZKUNTZA

BLA
BLA
BLA
BLA
BLA
BLA
BLA
BLA




		NOR		NOR-NORI		NOR-NORK		NOR-NORI-NOR									
INDICATIVE	PRESENT	naiz haiz da gara zara zarete dira	NA HA GA ZA ZA	tzai tzai zai tzai tzai	T K/N O GU ZU ZUE E												
	PAST	nintzen hintzen zen ginen zinen zineten ziren	NIN HIN ZI GIN ZIN ZIN ZI	tzai tzai tzai tzai tzai tzai tzai	DA A/NA O GU ZU ZUE E	n n n n n n n	nuen huen genuen zenuen zenuten zuten	nituen hituen zituen genituen zenituen zenituzten zituzten	NIN HIN GIN ZIN ZIN ZIN ()	du du tu tu tu tu ()	DA A/NA - GU ZU ZUE TE	n n en n n n n	D	izki	T K/N O GU ZU ZUE E	T K/N - GU ZU ZUE TE	
CONDITIONAL	COND.	banintz bahintz balitz bagina bazina bazinete balira	ba ba ba ba ba ba ba	NIN HIN LI GIN ZIN ZIN LI	tzai tzai tzai tzai tzai tzai tzai	DA A/NA O GU ZU ZUE E	ke ke ke ke ke ke ke	banu bahu balu bagenu bazenu bazenute balute	banitu bahitu balitu bagenitu bazenitu bazenituzte balituzte	ba ba ba ba ba ba ba	NIN HIN du du du tu tu tu ()	DA A/NA - GU ZU ZUE TE	n n en n n n n	ba ba ba ba ba ba ba	N H Z GEN ZEN ZEN Z	DA A/NA O GU ZU ZUE E	T K/N - GU ZU ZUE TE
	CONS. PRES.	nintzateke hintzateke lizateke ginateke zinateke zinatekete lizateke	NIN HIN LI GIN ZIN ZIN LI	tzai tzai tzai tzai tzai tzai tzai	DA A/NA O GU ZU ZUE E	ke ke ke ke ke ke ke	nuke huke luke genuke zenuke zenukete lukete	nituzke hituzke lituzke genituzke zenituzke zenituzkete lituzkete	NIN HIN GIN ZIN ZIN ZIN ()	du du tu tu tu tu ()	ke ke z z z z z	ke ke ke ke ke ke ke	T K/N - GU ZU ZUE TE	n n en n n n n	N H L GEN ZEN ZEN L	DA A/NA O GU ZU ZUE E	ke ke ke ke ke ke ke
SENTENTIAL	CONS. PAST	nintzatekeen hintzatekeen zatekeen ginatekeen zinatekeen zinateketen ziratekeen	NIN HIN LI GIN ZIN ZIN LI	tzai tzai tzai tzai tzai tzai tzai	DA A/NA O GU ZU ZUE E	ke ke en en en en en	nukeen hukeen lukeen genukeen zenukeen zenuketeen luketeen	nituzkeen hituzkeen lituzkeen genituzkeen zenituzkeen zenituzketeen lituzkeeten	NIN HIN GIN ZIN ZIN ZIN ()	du du tu tu tu tu ()	ke ke z z z z z	ke ke ke ke ke ke ke	DA A/NA - GU ZU ZUE TE	n n en n n n n	N H L GEN ZEN ZEN L	DA A/NA O GU ZU ZUE E	ke ke ke ke ke ke ke
	PRESENT	naiteke haiteke daiteke gaitezke zaitezke zaitezketek daitezke	NA HA DA GA ZA ZA ZA DA	ki ki ki ki ki ki ki ki	DA A/NA O GU ZU ZUE E	ke ke ke ke ke ke ke			NA HA DE GA ZA ZA D	zake zake zake zake zake zake zake	T K/N - GU ZU ZUE TE	n n en n n n n					
SENTENTIAL	PAST	nintzekeen hintzekeen zitekeen gintzekeen	NEN HEN ZE GE	ki ki ki ki	DA A/NA O O	ke ke en en	nezakeen bezakeen	nitzakeen	NA HA DE GA ZA ZA D	zake zake zake zake zake zake zake	T K/N - GU ZU ZUE TE	n n en n n n n	D	ieza(zki)	DA A/NA O GU ZU ZUE E	ke ke ke ke ke ke ke	T K/N - GU ZU ZUE TE

HIZKUNTZA

Aurreko atalean, hainbat parte-hartzailek euskara ikasteko laguntza zehatzak sustatzeko beharraren inguruan hitz egin dute. Zein hizkuntzatan komunikatzen garen, hizkuntza horretarako sarrera nolakoa den eta hizkuntza horren zein ezagutza dugun gakoak dira LGTBI kolektiboaren barruan gerta daitezkeen bazterketak ulertzeko orduan. Erreterian, hainbat hizkuntza daude: batzuk ofizialak dira (hala nola, euskara eta gaztelania), eta beste batzuk ez dira ofizialak, baina herriko hizkuntza-dibertsitatearen inguruko informazioa ematen digute (esaterako, arabiera, txinera edo urdua). 2017an Soziolinguistika Klusterrak egindako inkestaren arabera, Erreterian gehien erabiltzen den hizkuntza gaztelania da. ErreferenteEKINen kasuan ere honako hau da parte-hartzaile gehienek diagnostikoan erabili duten hizkuntza (Ikus 1. eranskina):

Euskararen kale erabilera Erreterian



Hala ere, gaztelania parte hartzeko hizkuntza nagusia izan bada ere, parte-hartzaileen **% 83k** badute euskaraz komunikatu ahal izateko adina gaitasun. Zentzu horretan, **% 63k** onartu dute euren egunerokotasunean euskaraz mintzatzen diren LGTBI erreferenterik gabe hazi direla. Zifra hori **% 85**erainokoa da euren burua homosexual edo marika gisa definitzen dutenen kasuan. Gaztelania da Erreterian LGTBI komunitateak gehien erabiltzen duen hizkuntza, eta euskarazko LGTBI argot propio baten zein erreferenteen gabeziak euskara baztertuta egotea areagotzen du, erabiltzeko baldintza objektiboak egon badauden arren:

«Batekin ligatzen zenuen, eta beti castellanoz; gero, txortan egitean ere, castellanoz; oilategian, beti castellanoz... Eta zu arraro sentitzen zinen zure hizkuntza erabiltzea ezinezkoa zelako» (Eztabaida taldea, Hizkuntza).

Parte-hartzaile gazteenen artean, ordea, aldaketa gertatu dela ikus daiteke; batez ere, emakume bisexualen eta lesbianen artean. Horiek euskara erabiltzen dute harremanetarako hizkuntza nagusi gisa, baita LGTBI testuinguruetan ere:

«Kanpoan bizi izan naizenean bakarrik erabili dut gaztelania. Beti egin izan dut euskaraz, baita neska batekin ligatu dudanean ere. Nire ingurua euskalduna da; beraz, niretzat normala da» (L003)

«Lagunekin beti egiten dut euskaraz, baina egia da klasean gaztelania erabiltzen dudala. Baina, nire hemengo kuadrillan, denok gara LGTBI, eta, normalean, euskaraz aritzen gara» (T002)

EUSKALDUNAH ETEROA DA

Bestalde, aurreko ataletan aipatu den herriaren idiosinkrasiak euskara eta heterosexualitatea lotzen ditu sinbolikoki; hau da, ona, duina eta zintzoa heterosexualitatearen sinonimo dira, eta dezentzia eta purutasun horien barruan sartzen da euskara ere. Beraz, euskararen erabilera heterosexualitatea praktikatzan duten horientzat dago erreserbatuta. Hala, sexu-disidentziaren posizioetan kokatuta, gaizkia, iraingarria eta lotsagarria den hori izatera igarotzen zara, eta zintzotasun- nahiz purutasun-gabezia horri erreserbatzen zaio gaztelania edo euskara ez den beste edozein hizkuntza:

«Oso txikia nintzenean, oso afeminatua nintzen, eta bizilagun askok iraintzen ninduten: mademoiselle (14) deitzen zidaten. Beti frantsesezko hitzak erabiltzen zituzten ni iraintzeko» (G004).

Irain LGBTIfobiko gisa beste hizkuntzetako hitzak erabiltzen badira ere, euskara eguneroko hizkuntza gisa erabiltzen duten horiengan heterosexualitate-aurreiritziak ere izaten dira, eta horrek eragiten du etengabe armairutik ateratzen ibili beharra:

«Euskaldun petoa naiz, familia euskaldunekoa, eta beti euskaraz egin izan dut. Askotan gertatu zait, norbaitek homosexuala naizela jakin duenean, harrituta esan didala. Pues no lo pareces, hain euskaldun petoa izanda; gainera, pues no lo pareces hori gaztelaniaz esan izan didate beti» (G003)

Hain zuzen ere, parte-hartzaileek «armairu linguistikotzat» (G002) jo dutena da hori, eta bi norabidetan du indarra: batetik, testuinguru zehatz horretan denek gaztelaniaz hitz egiten dutelako aurreiritzia dago, eta, bestetik, euskaraz hitz egiten duena heterosexuala

delako aurreiritzia dago.

Ama-hizkuntza euskara duten parte-hartzaile batzuentzat, gainera, euskarak arau gisa funtzionatzen du, eta arau horrekin duten harremana gatazkatsua izaten da; alde batetik, euskara normatibo eta nuklear gisa eraikitzen delako, eta, bestetik, euskara sozialki heterosexuala delako eta, hortaz, euskarak ez duelako eurei buruz hitz egiten, ez dituelako kontuan hartzen. Horregatik, kasu batzuetan, euskararekiko urruntze-prozesu bat gertatzen da, libre izatea ahalbidetzen ez dien araua hausteko modua balitz bezala:

«Garai batean, ez nuen sentitzen euskara askatasunerako hizkuntza zenik, eta nire eremu alternatiboetan ez nuen erabiltzen. Euskara zen etxea, zen familia, zen euskal identitate zaharra, eta gu beste gauza batzuk esperimentatzen ari ginen. Denborarekin ohartu naiz euskara ez dela hegemonia, eta periferian gauden gorputz eta desioekin zerikusi handia duela. Erresistentzia-hizkuntza bat da, baina horretarako beste modu batez ulertu behar dugu: tradizio heteroarautu horretatik urrundu behar dugu» (B002)

Hala, Euskara Sailak liburutegietan, euskaltegietan, eskoletan eta abarretan eskuragarri egongo diren euskarazko LGBTI argotaren koadernotxoak diseinatzea proposatu da. Horrek LGBTI komunitatean euskararen erabilera normalizatzen lagunduko luke, eta ikasten ari direnentzat ere lagungarri izango litzateke kolektiboari erreferentzia egiten dion terminologia eskueran edukitzea. Bestelade, herriko euskara-ikastaroetan irakatsiko litzatekeen LGBTI hiztegiari buruzko unitate didaktiko espezifiko bat sortzea da beste proposamenetako bat. Azkenik, espazio publikoaren okupaziora eta ikusgaitasunera bideratutako kanpaina espezifikoetan ere (Madalena jaietakoak, adibidez) hizkuntzaren aldaera txertatu beharko litzateke. Sexu bereko pertsonekin

14 / Señorita frantsesez.

euskaraz ligatzera animatzen duten kartelak ere aukera bat izan litezke.

LGTBI ERDALDUNAK EUSKALDUNTZEN


Euskara ikasteko aukera zuzenik izan ez dutenek (bestelako jatorria duten pertsonak, adibidez) adierazi dutenez, euskara ikasteko laguntzak edo aukerak ez dira nahikoak. Kasu batzuetan, pertsona horiek ez dute herriarekiko lotura erakusten duen errolda-agiririk, eta, beraz, ezin dute eskoletan izenik eman. Beste kasu batzuetan, eskola-orduak gutxiegi dira hizkuntza ikasi ahal izateko:

«Astean ordu eta erdiz jasotzen ditut euskara-eskolak, eta horrekin hiztegi pixka bat ikasten dut, baina ez da nahikoa. Gaztelania urte gutxi batzuetan ikasi dut, baina euskararekin ez dago halako erraztasunik» (L009)

Asilo-programetan dauden pertsonen kasuan, gainera, denbora mugatua dute artatzen dituen komunitatearen hizkuntza ikasteko (urtebete eta hiru urteren artean), besteak beste. Egungo harrera-programek ez dituzte euskara-eskolak aurreikusten, gaztelania-eskolak ez bezala:

«Programan sartzea lortu bezain laster, gaztelania-eskola trinkoak jaso nituen. Ikasteko denbora neukan; une ona izan zitekeen euskara ere modu trinkoan ikasteko, baina programak ez zuen hori eskaintzen, eta nire kontura ezin nuen ordaindu!» (G005)

Bada, erroldatuta ez dauden pertsonen edo egoera irregularrean daudenei euskara-ikastaroetarako sarrera erraztea, errefuxiatuentzako ikastaro trinkoak diseinatzea eta ordutegiak eta eskola-orduak migratuen baliabide, premia eta denboretara egokitzea dira LGTBI komunitate migratuaren eskaerak.



08



HEZKUNTZA



HEZKUNTZA

Txosten guztian zehar ikusten ari garen moduan, heterosexualitatearen presuntzioa konstante bat da sexu-arauditik kanpo kokatzen den pertsona oren bizitzan. Presuntzio hori bereziki bizia izaten da derri-gorrezko hezkuntzan, baina hor egoten jarraitzen du, aurrean dugun pertsonaren belaunaldia dena delakoa izanda ere. Bada, parte-hartzaileen gehiengoak eremu bortiztatzat jotzen du eskola.

Nolakoa zen eskola?



ESKOLA HETEROSEXUAL BAT

Hezkuntza formalaren etapa guztietan etengabeak izaten dira heterosexualitateari egiten zaizkion aipamenak, eta, nerabezaroan, areagotu egiten dira. Errealitate horren ondorioz, gazte askok zalantzan jartzen dute beren sexu-joera, edo, askotan, babes-mekanismo gisa, ezkutatu ere egiten dute:

«Txikitatik, mezuak heterosexistak izaten dira; heterosexuala da hoberena, nagusia, eta gainerako joerak bestea dira, ezberdina. Horrek kristoren mina ematen du: errudun sentitzen zara erakarpen bat sentitzeagatik, eta zeure burua zigortzen duzu: ‘Hau ezinezkoa da, ez zait gustatzen, lagun berezia baino ez da’. Ez zara libre sentitzen (...) Irakasle guztiak mezu heteroak bidaltzen dizkizute» (X001)

«Ikastetxean, ez nuen inoiz esan nire orientazioa zein zen; beldurragatik ezkutatu nuen» (Inkestako erantzuna, homosexuala)

Beraz, heterosexualitatea da arau nagusia, eta bestea alternatibatzat hartzen da, eta salbuespen bihurtzen. Sexualitateari buruzko eskolak dira horren adierazle nagusiak (parte-hartzaile guztiak ez dituzte halakoak jaso). Saio horiek jaso dituztenen **% 93k** adierazi dute eskola horiek ikasgelaren heterosexualitate-esparrua indartzeko besterik ez dutela balio izan eta ez dietela ezertan lagundu. Bestalde, agintaritza-irudiek botatzen dituzten diskurtso ez-heterosexual urriek (15) oso alternatiba homogeneoa irudikatzen dute, sexu-disidentzia osoa barne hartzen ez dutenak. Beraz, ikasleei aurkezten zaien binomioa «heterosexuala edo homosexuala izatean» datza. Bi kategoria horien artean dagoen aniztasuna ez da aukera gisa azaltzen, eta, hortaz, bere burua horietan kokatzen ez duenak mugatzailetzat jotzen du alternatiba bera ere.

«Nik banekin ez nintzela heterosexuala, emakumeenganako erakarpena sentitzen nuelako, baina gizonezkoenganako erakar-

15 / Bai irakaslegoaren aldetik edota foma-kuntza zehatza ematen duten kanpo agenteen aldetik.

pena ere sentitzen nuen. Aukera hori ez zen existitzen, bisexuala izateko aukera; ondorioz, neskak gustatzen zitzaizkidalako ideia burutik kendu, eta mutilekin egotera mugatu nintzen. Denborarekin konturatzen zara bestelako diskurtsoak edo erreferenteak iritsi izan balitzaizkizu ez zenukeela erakarpen hori ukatuko» (Emakume bisexuala, hezkuntzako eztabaida-taldea)

Noizbehinka, ageriko bortizkeria hori areagotu egiten da eraso LGBTIfobikoekin, zeinak irainen, jazarpenaren edota bullyingaren bidez gertatzen diren. Bada, ErreferentEkinen parte-hartu duten pertsonen % 73k jasan ditu horrelako erasoak inoiz. Alabaina, erasoak pairatzeko arriskua ez da ikaskideengana mugatzen, batzuetan irakasleek beraiek ahalbidetzen dutelako errealitate hori gertatzea, aktibo jardunez nahiz omisioz. Adibidez, belaunaldi helduenetan edota itunpeko eskola erlijio-soetan ikasten dutenengan, askotan errepikatzen da/zen egoera hori; eskola publikoan ikasten duten gazteagoen artean, ordea, irakasleen jarrera ulerkorragoa izaten da, eta sutsuago jokatzeko dute LGBTIfobiaren aurka:

«Nire maisua homofoboa da. Adibidez, boligrafo bat eskatu nion klaseko bati, eta Zuri zer utziko dizut, marikoia! esan zidan. Irakasleak ezer gertatu izan ez balitz bezala jokatu zuen; ni leher eginda nengoen, eta berak ez zuen ezer esaten. Horrelakoetan, nire ustez, irakasleak abisua eman behar dio» (P001)

«Eduki nuen irakasle bat ez zena batere ondo portatu: begiak itxi zituen, eta ni, bitartean, bullyinga jasotzen» (G001)

Diagnostikoan parte-hartu dutenek ikastetxeko irakasleen eta langileen prestakuntza-gabezia aipatu dute haien jarrerak eta ikasleei sorrarazten dieten zaurgarritasuna azaltzeko. Zaurgarritasun eta laguntza falta hori, ordea,

are nabariagoa eta handiagoa da ikasle transexualekin topo egiten dugunean: irakasleek ez dute argi izaten zein diren ikasle horiekin edota beren senide edo tutoreekin eduki beharreko tratamendua, eman beharreko laguntza eta egin beharreko lana:

«Ikaskideekin nahiko erraza izan zen, baina irakasleei gehiago kosta zitzaien. Azterketetan, nire izena jarrarazten zidaten, eta nire burua irudikatzen zuen izenez deitzeko eskatu behar izan nien» (T002)

«Denetik dago, baina irakasleek ez zuten prestakuntzarik. Gure semearen berri izan zutenean, prestakuntza jaso zuten, baina, ordurarte, ez zekiten ezer ere, eta ezin da izan horrelako kasu bat duzunean soilik prestatzea» (LT002)

Gainera, batzuetan, indarkeria-maila hain izaten da handia, ezen, ikasleek, hain intentsitate handiko bullyinga jasaten ez jarraitzeko, migrazio behartu bati ekin behar izaten dioten:

«Banuen lagun bat Erreterian bizi zena, eta beti esaten zizkieten marikoia eta bujarra bezalako hitzak, eta horregatik eskolan oso gaizki zegoen. Bi aldiz aldatu zen eskolaz, eta, hain gaizki zegoenez, ez zen etxetik ateratzen. Azkenean, Erreteriatik joan ziren, eta orain urrun bizi dira» (P001)

«Semeari beti egiten zioten bullyinga. Ikastola salatu nuen, eta haurra eskolatik atera nuen. Hitz politikak jaso nituen eskolatik, baina gehiagorik ez» (G003)

«Txikitan, ikaskideek isolatu egin ninduten; bullyinga egin zidaten. Etxera iritsi, eta ez nuen logelatik atera edo eskolara itzuli nahi izaten, banekielako han gaizki

egongo nintzela. Ez nintzen ezer esatera ausartzen: isilik geratzen nintzen, eta dena etxera eramaten nuen. Orain aldatu egin da, zerbait gertatzen baldin bada nire lagunekin hitz egiten baitut, eta ez naiz isiltzen, baina jendeak, nire aurretik pasatzen denean, Marikoia! oihukatzen jarraitzen du» (P001)

Eskoletan LGTBI ikuspegia duten bullying LGTBI fobikoaren kontrako prebentziozko programak txertatzea proposatu da. Ikasleei nahiz irakasleei zuzenduriko programa horiez gain, ordea, ezinbesteko ikusi da aniztasunaren inguruko prestakuntza handitzea, eta, horri begira, lehen hezkuntzatik hasiko litzatekeen ikasgai egonkor bat sortu beharko litzateke. Hala ere, badira txostenean azaleratu diren beste ideia batzuk ere: hala nola, transei laguntzeko protokoloak sendotzea eta familien nahiz sexu-disidentzien askotariko ereduak ikusarazteko lan pedagogiko zehatz bat egitea. Azken proposamen hori EHIGE elkartearen bidez eta prestakuntza-ikastaro zein -hitzaldien bidez egin daiteke.

Proposaturiko neurri asko Udalaren eskumenen mende ez daudenez, Eskola Feministaren [16] barruan prestakuntza-lerro egonkor bat irekitzea proposatu da; irakasleei bideratuta egongo litzateke, eta adituak emango litzatekeen mintegi monografikoekin eratuko litzateke. Gainera, adin txikikoentzako saioak eskain litezke eskola horren programazioaren barruan (hala nola, LGTBI autodefentsa, trans-ahalduntzea, LGTBI asoziazionismoa [17] eta abar). Azkenik, Udaleko Hezkuntza Batzordearen barruan hezkuntza, generoa eta sexu-aniztasuna lantzeko lantalde zehatz bat sortzea proposatu da, eta gaien adituak diren pertsonak taldera sartzea.

16 / Berdintasun Sailak aurrera eramaten dituen ekintzen berri izan nahi ezkerro ikusi: <https://errenteria.eus/udala/udal-sailak-eta-azpisailak/berdintasuna/>

17 / Vitoria-Gasteizeko ahalduntze eskolek, jada, badure eskaintza hau.

ESKOLA EZ DA HAIN HETEROSEXUALA

Parte-hartzaile askok hezkuntza-ibilbide osoan inongo LGTBI erreferente positiborik izan ez dutela adierazi badute ere, ezin daiteke baieztatu arauturiko hezkuntzan pertsona ez-heterosexualik ez dagoenik. Irakasleek, askotan, jasan ditzaketen askotariko estigmengatik edota beren lanaren ezegonkortasunarengatik, nahiago izaten dute ikusgarri ez agertu, eta, ondorioz, ezin daitezke ikasleen erreferente positibo bilakatu.

Familia ez-heterosexualei edo guraso bakarreko familiei dagokienez, ikusgarri izateko joera badute ere, hezkuntza-ereduak berak ikusezin bihurtu eta estigmatizatzen ditu:

«Amaren egunean, alabak bi opari egingo zituen, eskolan egiten diren eskulan horietakoak, bi ama dituelako, baina, noski, ikasleko opari bakarra zuten pentsatuta. Eta, aitaren egunean, zer egiten du? Ez litzateke hobea izango familiaren eguna ospatzea?» (LT002)

«Eskolako psikologoak behin esan zidan semeak ama baten falta zuela. Beste batean, gurasoen afari batean, Ez dakigu nora gonbidatu, ze, mutilarekin futbolera joaten zarenez, gizonekin, baina, umearekin parkean egoten zarenez, emakumeekin esan zidaten» (G003)

Hortaz, hiruko norabidean (irakasleak, ikasleak eta familia edo tutoreak) egin beharko litzateke lan, zeharka; horixe litzateke egokiena. Udalaren Hezkuntza Batzordean hiru elementuak txertaturik egotea da aukeretako bat, baita EHIGE elkartearen bidez lan egitea ere, edota eskoletako tutoretza-saioetan askotariko familia-ereduak lantzea.

09

OSASUNA




OSASUNA

Osasuna da pertsona oroaren bizitzaren ardatza, baita LGTBI pertsonena ere. Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, osasunak ongizate fisikoa, mentala eta soziala biltzen ditu, eta, ongizate-egoera hori zein den jakiteko, pertsonak osasun-zerbitzuetara jotzen dute. Bada, parte-hartzaileen **% 63k** arazoren bat topatu dute hor.

IKUSGARRITASUN GEHIAGO ETA ESTIGMA GUTXIAGO

Alabaina, osasun-zerbitzuen inguruko pertzepzioa ona da; lehen mailako arreta-zerbitzuei dagokienez, batez ere. Izan ere, parte-hartzaileen **% 76k** arreta ona ematen dietela eta seguru sentitzen direla adierazi dute. Anbulatorioa, beraz, gertuko gunetzat eta ez-oldar-

Arazorik izan dituzu osasun zerbitzuetan?



kortzat hartzen dute, eta familia-medikuarekin estigma handirik gabe hitz egin dezaketela sentitzen dute. Hala ere, harremana oro har ona den arren, sexu- eta genero-aniztasunaren inguruko prestakuntzarik eza nabaritzen dute. Hala, sarritan, bi faktoreen arabera ematen zaizkie gomendio onak pazienteei: medikuak aurretik antzerako kasurik izan badu edo aurrez prestatzeko inizatiba pertsonala izan badu. Zoriaren arabera da, beraz, esperientzia hori ona edo txarra izatea, eta, ondorioz, LGTBI kolektiboaren baitan ez dago tratatu orekatuak:

«Familiako medikuak esan zidan berak ez zekiela ezer trans-gaiaren inguruan, ez zekiela zer egin behar zen. Beraz, mediku gehiagori galdetu zien, eta inork ez zekien ezer. Azkenean, endokrinoarengana bidali ninduen, fardela gainetik kentzeko bezala. Ez zuen hori egin beharrik: Bilbora bideratu behar ninduen» (T002)

«Nire medikuak bazekien zer egin behar zuen, aurretik mutil bat joan baitzitzaion kasu berberarekin eta orduan ikasi baitzuen zer egin behar zuen eta nora bideratu behar ninduen» (T001)

Izan ere, lehen arretako zerbitzuetan, sexu-identitatearekin zerikusia dutenak izan ohi dira arazo ohikoenak, izan osasun-langileen prestakuntza faltagatik, izan administrazioko langileen jarrera transfobikoarengatik:

«Leihatilara txanda eskatzera joan nintzenez, nire dokumentuan jartzen zuen izenarekin artatu ninduten, nire genero-adierazpenarekin bat egiten ez bazuen ere. Behin, lau aldiz esan behar izan nion hori ez zela nire izena» (T002)

Administrazioko langileek kudeatzen dituzten guneak nahiko aurkakotzat hartzen dituzte. Adibidez, parte-hartzaileei askotan gertatu izan zaie txanda hartzeko deitu eta aukeratutako izenarekin ez artatzea, edo sexu-transmisiozko gaixotasunak identifikatzeko analisiak egiteko txanda eskatu eta begirada estigmatizatzaileak sentitzea:

«Norberaren medikua baino, administrazioko langileak geratzen dira shock-egoe-ran VIFa duzula jakiten dutenean, eta, batzuetan, Logikoa da: zer espero duzu, promiskuoa bazara bezalakoak entzun behar izaten dituzu. Egia da gauzak aldatzen ari direla sentitzen dudala, baina asko falta da oraindik. Arazoa ez da medikua, mostradoreko begiradak baizik» (G004).

Lehen arretako zerbitzuetan, sexu-transmisiozko gaixotasunak dira gai gatazkatsuena, eta hainbat arrazoi topatu dituzte hori azaltzeko: batetik, gaia tabua balitz bezala tratatzen da oraindik orain; bestetik, okerreko lotura egiten da sexu-transmisiozko gaixotasunen, promiskuitatearen eta homosexualitatearen artean, eta, azkenik, tratamendu zehatz batzuk kudeatzen dituzten osasun-zerbitzuak Donostian zentralizatuta daudenez, Errenteriatik hara joan behar da, eta sarbidea zailtzen du horrek [18].

«Sexu-transmisiozko gaixotasunen bat edukitzeko arriskua izan dudanean, zuzenean joan izan naiz Grosera, anbulatorioa ekiditeko, oso mediku zaharra dudalako. Osasun-arloa ez da lasai-lasai eta solte hitz egin dezakegun eremua» (G002)

18 / Azken hori hormona-tratamenduekin eta trantsizio-prozesuekin ere gertatzen da.

«Penizilina jarri behar izan zidaten, eta erizaina zuri geratu zen, Zer gertatzen zaizu? galdetuko balit bezala. Azalpenak eman behar nizkiola sentitu nuen. Erraza da: sifilisa pasa didate. Zer nahi duzu egitea? Isildu zaitez, eta jariezadazu txertoa! Nik badut nahikoa sifilisa izatearekin» (G001)

Diagnostikoan parte hartu dutenek premia kotzat jo dute sexu-transmisiozko gaixotasunen inguruko estigma lantzea, eta lanketa lau noranzkotan egiteko beharra identifikatu dute. Batetik, LGTBI komunitatearen baitako prestakuntzaren, sentsibilizazioaren eta prebentzioaren arloa dago. Bada, horri begira, eskoletan kanpaina espezifikoa egitea planteatu da, eta sexu-harreman seguruak izateko doako materiala banatzea liburutegietan, osasun-zentroetan, tabernetan, gimnasioetan, udaletxean edo Emakumeen Etxean, besteak beste. Banaketa-gune horietan, materialaz gain [antisorgailuak, latexezko barrerak, hatz-zorroak, lubrifikatzaileak eta abar], osasun-baliabideen inguruko informazio-orri bat ere bana liteke. Halaber, lesbianekin eta emakume bisexualekin informazio- eta prebentzio-lanketa espezifikoa egiteko premia azaldu da, sexu-harreman seguruak edukitzeko praktiken inguruko ezjakintasuna dagoela hauteman baita.

Bigarrenik, osasun-zentroko itxarongeletan ikusgarritasunerako udal-kanpainak ezartzeko ideia agertu da [kartelen edo informazio-standen bitartez], sexu- eta genero-aniztasunaren gaineko estigma hautsi eta pertsona horiei ikusgarritasuna emateko. Azkenik, administrazioko langileekin sentsibilizazio-lanketa bat egitea aipatu da, LGTBI komunitateak talde horri eman baitio baloraziorik eskasena.

Lehen mailako arretako zerbitzuetan, ordea, bada beste foku arazotsu bat ere: pediatriako kontsultetako prozesua. Izan ere, familia heterosexual nuklearraren ideia indartzen da horietan; hau da, haurrek aita eta ama bana dituztela balioesten dute, eta amen ardura dela haurrak zaintzea:

«Askotan, medikuarengana semarekin joaten nintzenean, esaiozu emazteari umeari botikak emateko esaten zidan» (G003)

Osasun-sisteman, jarraikortasuna duen gaia da familia heterosexualarena, eta, pediatrian ez ezik, ospitaleratzeetan edo larrialdietan ere maiz agertzen da. Hala, batetik, pazienteari haren bikotekideak lagundu behar diola balioesten da, eta, bestetik, medikuen iruditerian ez dago bikotekidea sexu bereko pertsona izan daiteke-elako aukerarik, eta are gutxiago familiakoak izan gabe lagun- edo zaintza-sareetako kideak izateko aukerarik:

«Bihotzekoak eman zidanean, nire muti-lari galdetu zioten ea ezkonduta geunden, pasatzen uzteko» (G003)

Lehen mailako arreta-zerbitzuetatik kanpo, ginekologia-konsultetan dago heterosexualitate-presuntzio handiena. Parte-hartzaileen % 83k adierazi du bizipen txarrak izan dituztela ginekologiako bisitetan, izan beren sexu-joera zalantzan jarri dutelako, izan sexu-joera hori ikusezin egin dutelako edo, informazio gabezia dela-eta, pazienteen zalantzei erantzuteko gai izan ez direlako:

«Oso biolentoa da. Behin, Egin duzu zitologiari? galdetu zidan medikuak. Ezetz erantzun nion, eta, nire mediku-historia begiratu ondoren, zera esan zidan: Ikusten dut erlazio homosexual bat duzula; sarketarik izan duzu inoiz? Zer jakin nahi zuen? Alutik zerbait sartu dudana ala zakilik sartu dudana? Emakume osoa izango ez bazina bezala sentiarazten zaituzte. Birjina izango banintz bezala begiratzen ninduen. Eta, hain da gogorra indarkeria hori, ze neska batekin sexu-harremanak izateagatik lotsatu ere egiten zara» (X001)

«Infekzio bat eduki nuen, eta medikuak jakintzat jo zuen gizon batekin izan zela, sarketarekin gertatu zela. Ezetz esan nion, behatzekin izan zela. Baina oso ondo erantzun zuen. Hala ere, heterotzat jotzen zaituzte; beti zehaztu behar izaten duzu ezetz: beti esan behar duzu bollera zarela. Galdera ez da norekin oheratzen zaren, heteroa zaren baizik» (L007)


«Tripa puztu-puztua nuen, eta haurdun ote nengoen galdetu zidan medikuak. Nik, ezetz, emakumeekin ibiltzen nintzela. Egin testa! erantzun zidan. Nik, ezetz, emakumeekin ibiltzen nintzela. Egin testa!, berriro hark. Eta joan egin nintzen» (L002)

Emakume askok kontsultetan bizitzen dituzten areritasun ginekologikoaren eta indarkeria obstetrikoren aurrean, alternatiba gisa sortu da Emakumeen Etxean autoezagutzarako eta aholkularitza ginekologikorako gune bat sortzea, maiztasun egonkorra izango lukeena. Bada, Erreterriako baginadun pertsonak elkartu, beren sexu-osasuna ezagutu eta horren inguruan ahalduntzeko gunea izango litzateke.

Azkenik, landu beharreko puntu estrategikotzat jo dute osasun mentalaren eta emozionalaren arloa, zerbitzu horien erabiltzaile askok adierazi baitute kontsultetan indarkeria LGBTIfobikoa bizi izan dutela. Beste batzuek, aldiz, zerbitzu horiek eguneroko LGBTIfobiatik osatu ahal izateko behar dituztela adierazi dute. Bada, Udalak sustatuko lukeen doako aholkularitza psikologikoa sortzea da gehien aipatu den proposamena.

10

LANA



LANA

Lanak pertsonen eguneroko bizitzaren zati bat baldintzatzen du, eta lana edukitzeak edo ez edukitzeak oso zentralitate handia du ErreferenteEKIN proiektuan parte hartu duten pertsona gehienek bizitzan. Gazteek, transek, migratzaileek eta errefuxiatuek agertu dituzte zailtasun handienak esparru horretan. Aurreiritzi arrazitek, dokumentazio arautua ez izateak, transfobiak eta lan-merkatuaren ezegonkortasunak eragiten dute profil horiek zaurgarriagoak izatea; lan-merkatura sartzeko dituzten zailtasunak, behin-behinekotasun handiko baldintzak eta prekarietate-egoera etengabea dira errealitate horren arrazoi nagusiak.

«Paperik gabe eta trantsizio-prozesu baten erdian lana topatzea ez da erraza. Mugitu beharko dut eta ateratzen den tokian lan egin. Etxez aldatu behar badut, hala egingo dut» (T002)

«Kanpotarra naiz; nire erdara ez da perfektua, eta, batez ere, beltza naiz. Lana topatzeko zailtasun handiak izan ditut. Homosexuala izateagatik ez dut inongo arazorik izan; hala ere, egia da ez dudala inoiz esan banintzela ere» (G005)

ARAZORIK EZ, BAINA IKUSGARRITASUNIK GABE

Parte-hartzaileen **% 73k** adierazi dute lanean ez dutela inongo arazorik izan; **% 27k**, berriz, irainak, begiradak eta sexu-orientazioagatik edo -identitateagatik epaiketarik jasan dituztela esan dute. Arazorik izan ez dutenen ehunekoa altua izan arren, erantzuna sakon aztertzen badugu ikus dezakegu **% 73** horren **% 91k** erabaki dutela ikusgai ez izatea, bizi ditzaketan eraso edota kaleratzeen beldur. Beraz, egoera ez da hain ona:

«Lanean nahiago nuen nire bikotekideaz ez hitz egin; banekien, bestela, segituan gaitzetsiko nindutela. Hobe da ezer ez jakitea» (L001)

«Lanean, neure burua ikusgai ez jartzeko beharra sentitzen dut, kontu apur bat edukitzeko. Kolektibo migratzaile batzuekin gertatzen zait: gai horien inguruan lanketa eta sentsibilizazio-lana egin behar dira. Beti nabil kontu apur batekin» (L008)

Ikusi denez, bakoitzaren lan mota estuki loturik dago ikusgai izateko edo ez izateko erabakiarekin. Hala, eremu batzuk erasokorragotzat haratzen dira; esaterako, erakuntza eta industria (gizon homosexual eta bisexualen kasuan) edota zaintzarekin loturikoak (lesbianen edo emakume bisexualen kasuan).

«Eraikuntzan lan egiten nuen. Lan gogorra da, eta, gainera, gizontasunaren funtsa. Niretzat kontraesankorra zen, alde bate-tik, maskulinitate gorenak erakarri egiten ninduelako, baina, bestetik, erotikotzat har zitekeelako, eta horrek moztu egiten ninduen: gune erabat heterosexuala zen. Horrek, ikusgai izateko orduan, kontu handiarekin ibiltzera behartzen ninduen. Segurtasun-kontuengatik zen» (G008)

«Portuan egiten nuen lan, eta, oso lan maskulinizatua zenez, konfiantza falta zegoen nigan. Gaya nintzelako emakumeekiko harreman berezia nuela uste zuten, eta horrek mesfidantza sortzen zien» (G003)

«Pertsona helduak zaintzen ditut, eta nahiago dut lesbiana naizela ez esan. Ez da

ezergatik, baina uste dut hobe dela horrela, inork ez dezan ezer pentsatu ». (L009)

Bada, lanean denbora luzea daramaten pertsonak izaten dira ikusgaiak; oro har, lan-egoera ona dutenak. Hala ere, lan-balditzetan gertatu den eta gertatzen ari den atzerakadak, kaleratzeak merketu izanak eta enpresetan gertatzen ari diren aldaketek pertsona batzuen jarrera aldatzea ekarri dute, eta, segurtasun-neurriak tarteko, euren egoera ikusgai egiteari utzi diote:


«Laz arte, lanean ez dut arazorik izan, harik eta giza baliabideak kudeatzen dituen enpresak jarrera aldatu eta molde bortitzagoetara jo zuen arte. Momentu hartan, nire jarrera aldatzea erabaki nuen. Nire bizitza afektibo-sexuala pertsona horiekin naturaltasunez partekatzea ez zait ateratzen. Inork emakume edo gizon batekin nagoen jakin ez dezan, euskara erabiltzen dut, genero-markarik ez due-lako» (G002)

Ikusgai izateak zigorra jasotzeko arriskua dakar, eta parte-hartzaile askok kontatu dute «armairutik irteteen» lankide askok haiekiko jarrera aldatu dutela, harremana hoztu eta haiengandik urruntzearekin batera.

«Ezkundu nintzenean, nire saria eskatu nuen. Ia 20 urte neramatzan enpresan, baina, horren ondoren, dena aldatu zen. Homosexuala nintzela esatera beharturik nengoen, eta sekulako kaosa izan zen. Eztei-bidaian nengoela, lankideek ni aldagetatik ateratzeko eskaera egin zioten arduradunari, bestela haiek joango zirela mehatxatuta. Eskerrak arduradunak esan zien haiek zirela soberan zeudenak. Beste aldagela batera joan ziren, eta, gaur egun ere, aldagela horretan jarraitzen dute, 10 urte pasa diren arren» (G003)



Hasieran aipatzen genuen moduan, lan-munduan sartzeko transak dira sektorerik zaugarriena; izena generoz aldatzeko trantsizio-garaian daudenean, euren izenak ez du bat egiten NAN edota egoitza-txartelean agertzen denarekin, eta horrek arazoak sortzen dizkie lan-elkarrizketetan, hautagaitza atzera botatzeraino. Egoera irregularrean dauden pertsonen kasuan, legezko lanetarako sarbidea ezinezkoa da, dokumentazio arauturik ez dutelako. Ondorioz, legez kanpoko lanak egitera beharturik daude, eta ezkutuko ekonomian sartzen dira guztiz.

Kontratazio publikoetan klausula bereziak jasotzea da proposamenetako bat, transexualen edo egoera irregularrean dauden pertsonen kontratazioa lehenesteko. Bestalde, LGTBI herritarrei zuzenduriko enplegu-programa sortzea ere proposatu da.






11




ADMINISTRA-
ZIOAREKIKO
HARREMANA ETA
PARTE-HARTZE
POLITIKOA



ADMINISTRAZIOAREKIKO HARREMANA ETA PARTE-HARTZE POLITIKOA

Udala herritarrengandik gertuen dagoen erakundea da, bizitzaren egunerokotasuna kudeatzen duen lehen erakundea. Dena den, gertukoena izateak ez du zertan esan nahi erabiltzaileek gertuko sentitzen dutenik. Erreferenteekin parte hartu dutenen kasuan, udalarekin duten harremanaren inguruan galdetuta, **% 61**ek erantzun dute erakunde horrekin duten harremana neutroa dela. Ikusi denez, gehienek izapideren bat egin behar dutenean baino ez dute udaletxera jotzen.

Nolakoa da Udalarekin duzun harremana?



PARTE HARTZE EFEKTIBOAREN ALDE

Alabaina, erantzuna banakatzeko orduan, datuak aldakorak dira, mugimendu politikoan parte hartzen duten pertsonak udalarekin duten harremana askotarikoa baita: **% 79**k adierazi dute gertuko harremana dutela; **% 27**k harremana neutroa dela, eta **% 4**k urrunekoa dela. Oro har, udalarekin duen harremana ondo baloratzen du LGTBI mugimenduak, komunikazioa hobetu beharra dagoen sentipen orokorra egon badagoen arren.

«Sentitzen dut orain komunikazioa arina dela, baina beti egon behar duzu espazioak irabazten; ez da natural ateratzen den zerbait» (G004).

«Askotan, guk jotzen dugu kontuarekin Udalera, Udalak berak guri kontsulta egin eta egoeraren berri eman ordez» (Eztabaida taldea: espazio publikoa).

Behin komunikazioa ezarrita, parte hartzeko bideak falta direla eta parte-hartze hori efektiboa edo loteslea ez dela sentitzen dute oro har. Parte-hartzaile gehienek uste dute parte-hartzea une zehatzetara mugatzen dela, kanpaina espezifikotarako eta ibilbide luzerik ez duten prozesuetarako baino ez dela bideratzen, eta ez dagoela prozesu sozialak sustatzeko pentsatuta.

«Zebra-bideko margoketa oso ongi dago maila sinbolikoan, baina eskasa da, eta horretan geratzen da. Hori niretzat ez da prozesu soziala: Udalak erreferente batzuekin koordinatuta egin nahi duen zerbait da, eta ongi dago; prozesu sozialak indartzea, ordea, beste zerbait da» (L008)

«Udalaren eta mugimenduaren arteko komunikazio-bide eraginkorrak ireki behar dituzte, gure eskaerak irits daitezten. Horretarako, adibidez, berdintasunaren esparruan LGTBI gaien inguruan espezifikoak izango den eremu bat sor daiteke, organismo iraunkor aholku-emaile bat, gure bizitzak hobetuko dituzten prestakuntzari, aisiari edo segurtasunari dagozkien politika publikoak praktikan jarriko dituen» (G004)

«Zebra-bidearekin, adibidez, Francisekin lotura bat egin zen. Oso terapeutikoa izan da. Urte horietan antipodetan zegoen jendea batu eta zebra-bidea margotzera joan zen. Memoria hori ikastetxeetara eraman behar da. Zebra-bidearen fasea bukatu da: beste fase batera pasa behar da (ikerketari bat egin, Wikipedian jarri...): aitortzara igaro behar da, eta baita ordaindu ere» (G002)

Hala, proposamen ugari egin dituzte: LGTBI mugimenduaren eta erakundearen arteko komunikazio-bideak indartu eta bien arteko koordinazio-esparruak sortzea, adibidez. Halaber, komunitatean eragina duten gaien inguruko parte-hartze prozesuak susta daitezela eta mugimenduari gai horien gaineko edota Udalaren proiektu estrategiko eta «izarren» inguruko kontsulta egitea proposatu da. Zentzu horretan, mugimenduak zein neurritan parte hartzen duen argi eta garbi zehaztu behar dela nabarmendu da: Udalak argitu behar du mugimenduaren ekarpenak eta eskaerak lotesleak izango diren ala kontsulta hutsa izango diren.

MUGIMENDU INDARTU ETA INDARTSU BATERANTZ

Parte-hartzaile guztiak bat datoz ideia batean: gaur egun, Errenteriako LGTBI mugimendua ahulduta dago, sakabanututa, eta subjektu kolektiboa izan gabe funtzionatzen du. Aldi berean, mugimendua indartzeko lan egiteko

gogoia orokorra da, eta giza kapitalaren presentzia ukalezina da.

«Gaur egun, ez dago mugimendurik. Egia da Gipuzkoako mugimenduak indar handia duela eta horietako partaide batzuk Errenteriakoak direla, baina hori ez da Errenteriara ekarri; ez dugu tabernarik izan, adibidez» (G003)

«Elkartu eta gauzak egiten hasteko gogoia dut. Uste dut herri honetan LGTBI pertsona asko dagoela gogoz, baina antolatzea falta zaigu. Nik, adibidez, beti hor egon diren pertsonak ezagutzen ditut, baina ez naiz eurekin antolatzen, eta uste dut hori dela egin behar duguna» (L003)

Horretarako, zenbait irizpide identifikatu dituzte: batetik, modu autonomoan eta inolako babesik, zaintzarik edo tutoretzarik gabe egin behar dela eta, beste alde batetik, diagnostikoa egiteko prozesuaren ondorioz sortu den taldeari erakundearen laguntza eskaini behar zaiola. Laguntza horrek helburutzat izango luke Udalarekin erlazioatzeko modua diseinatzea eta elkarrekin garatzeko proiektu bateratuen agenda identifikatzea. Era berean, behin baino gehiagotan agertu den proposamena da LGTBI ikuspuntua Udalaren DNA sortzailean txertatzea; hau da, sexu-disidentzia eta normatibitatearekiko haus-tura Udalaren baitako ekintza-sarearen parte izatea. Hori nola egin daitekeen erakundeek lagundutako talde horretan bertan azter liteke.


Azkenik, agertu den beste proposamenetako bat da LGTBI memoriari buruzko lan-ildo bat txertatzea Udala giza eskubideen urraketen alorrean memoriarekin eta aitortzarekin lotuta egiten ari den lanean, eta Francisen memoriaren inguruko dibulgazio-lan bat finantzatzea.



12



IDENTIFIKATURIKO PROPOSAMENEN KRONOGRAMA



IDENTIFIKATURIKO PROPOSAMENEN KRONOGRAMA

ESPAZIO PUBLIKOA

- Mugimendua dagoen tokietan eta erabilera masiboko espazio publikoetan sexu eta genero aniztasuna erakutsiko duten karteekin kanpaina instituzional bat martxan jartzea, sare sozialetan presentzia ere izango duena.
- LGTBI mugimenduarekin batera urteko programa kultural zabal bat diseinatzea (hilero jardura bat), LGTBI-ak diren erreferente positiboak udalerrri osora zabaltzeko balioko duena.
- Harrotasunaren egun bat ospatzea proposatzen da (ekainak 28aren bueltan), egun osoko jardura eta ospakizun anitzekin erdiguneaz gain herriaren kanpoaldeak okupatuko duena.
- Oroitzapenezko egunetan ortzadarraren zein trans-en banderak udaletxean zabaltzea.
- Sexu-aniztasunaren eta genero-identitatearen inguruko derrigorrezko prestakuntza espezifikoa herriko poliziakide guztientzat.
- LGTBI pertsonak artatzeko derrigorrezkoa eta denbroan egonkorra izango den barne-protokoloa eratzea, polizia-etxean bertan edota kaleko esku-hartzeetan erabiltzekoa.
- Eraso LGTBI fobikoak artatzeko herri-mugimenduarekin koordinatutako 24 orduko udal-telefonoa martxan jartzea.
- LGTBI mapa sortzea.
- Hirigintzari loturiko ekintza zehatzak burutzea, leku ez seguru gisa identifikatu diren tokietan arrisku hauek gutxitu edo desagerraraziko dituztenak.
- Errenteriarira iristen diren LGTBI migratzaileei edota errefuxiatuei harrera egiteko, oinarrizko informazioa izango duen eta hainbat hizkuntzatan idatzita egongo den gida sortzea.
- LGTBI behatokia martxan jartzea.
- Ikusgaitasuna helburu duten ekimenak deszentralizatzea, gatazkatsuagoak diren auzoetara zabalduz.
- LGTBI bizilagunei ongietorria ematen dieten kartelak eta pegatinak jartzea lokaletan.
Hainbat tailer eta «prestakuntza-eskola» eskaintzea
- auzo-elkarteetan, pentsionisten guneeetan edota kirol-elkarteetan.
- LGTBI pertsonentzako etxebizitza komunitarioak sustatzea.
- Aniztasun-sailetik sustatzen diren programetan familia-ereduen inguruko lan-lerro bat txertatzea.
- Aldebiko lantalde bat sortzea proposatu da, instituzioaren eta LGTBI pertsona helduen artean, bertan LGTBI zaharkitzearen bizigarritasun aukerak ikertzeko.
- Prekarietate ekonomikoan nahiz sozialean dauden LGTBI pertsonak kontuan hartzea eta horiek etxebizitza-arloko diru-laguntzak jasotzeko aukera duten subjektutzat hartzea.

AISIA

- Kirol erabiltzaile eta ikusleak aniztasun sexualean formatzea.
- Askotariko kirolari espazio gehiago eskaintzea.
- Kirol lehiaketa mistoak sustatzea.
- Udal instalazioetako komun eta aldagela ez binarioak sortu eta egokitzea.
- Zerbitzari eta ostalarientzat aniztasun eta identitate sexualaren inguruko formakuntza programak sortzea.
- Ostalaritzako sektorean, eraso LGBTIfobikoen kasuetan aplikagarriak diren protokoloak sortzea.
- LGBTI pertsonentzako segurtasun erreferentzia izango diren puntu moreen antzekoak diren bereizgarriak sortzea tabernetarako.
- Taberna guztiei honelako mezua duten plakak banatzea: «Leku honetan, LGBTI ikusgaitasuna bultzatzen da, eta lekua uztera gonbidatuko dugu sexu-aniztasuna normaltasunez bizitzeko prest ez dagoen eta horretarako askatasuna mugatzen duen pertsona oro».
- Erreferente eta katalizatzaile gisa funtzionatuko duen gunea lagatzea.
- Jaietan ikusgaitasunarekin lotutako kanpaina espezifikoko abiatzea.

SEXILIOA

- Cis gizonekin (bereziki, gazteekin) sentsibilizazio-programak egitea, maskulinitate-ereduak eta maskulinitatearen alternatibak landu ditzaten.
- Ikerketa baten bidez kuadriletan normalizatuta dauden indarkeriazko dinamikak identifikatzea.
- LGBTI pertsona errefuxiatuentzat erreparaziorako espazio bat sortzea.
- Generazio berriek beren herrian LGBTI erreferente positiboak badaudela ezagutzeko materiala sortu eta zabaltzea.
- Jatorrizko herrialdeetan jasan duten indarkeria politikoa erreparatzeko ekintza zehatzak garatzea (adibidez, Udalak harrera ofiziala egitea).
- Udalaren diru-laguntza edo zerbitzu jakin batzuk jasotzeko diskriminazio positiboko neurriak txertatzea.
- Euskarako ikastaro trinkoak egiteko doako programak sortzea.
- Udal-aholkularitza bat sortu beharko litzateke, ihes eginda iristen diren pertsonen aterpe-eskaera egiteko prozesuan lagundu diezaion.
- Euskara Sailak liburutegietan, euskaltegietan, eskoletan eta abarretan eskuragarri egongo diren euskarazko LGBTI argotaren koadernotxoak diseinatzea.
- Herriko euskara-ikastaroetan irakatsiko litzatekeen LGBTI hiztegiari buruzko unitate didaktiko espezifiko bat sortzea.
- Sexu bereko pertsonekin euskaraz ligatzera animatzen duten kartelak sortzea.
- Erroldatuta ez dauden pertsonen edo egoera irregularrean daudenei euskara-ikastaroetarako sarrera erraztea.

HIZKUNTZA

HEZKUNTZA

- LGTBI ikuspegia duten bullying LGTBI fobikoaren kontrako prebentziozko programak txertatzea.
- Eraldaketa Feministarako Eskolaren barruan pres-takuntza-lerro egonkor bat irekitzea proposatu da; irakasleei bideratuta eta adin txikiko trans-entzat autodefentsa ikastaroak.
- Herrikoa den youtuber figura bat sortzea, gazteria-rekin konektatzeko LGTBI komunitatearen errealitatea islatzen duten bideoak sortuko dituen.
- Udaleko Hezkuntza Batzordearen barruan hezkuntza, generoa eta sexu-aniztasuna lantzeko lantalde zehatz bat sortzea proposatu da, eta gaian adituak diren pertsonak taldera sartzea.

OSASUNA

- Sexu-transmisiozko gaixotasunen inguruko estigma lantzea.
- Sexu-harreman seguruak izateko doako materiala banatzea liburutegietan, osasun-zentroetan, tabernetan, gimnasioetan, udaletxean edo Emakumeen Etxean, besteak beste.
- Osasun-zentroko itxarongeletan ikusgarritasunerako udal-kanpainak ezartzea, sexu- eta genero-aniztasunaren gaineko estigma hautsi eta pertsona horiei ikusgarritasuna ematen laguntzeko.
- Emakumeen Etxean egonkorra izango den autoezagutzarako eta aholkularitza ginekologikorako gunea bat sortzea.
- Udalak sustatuko lukeen doako aholkularitza psikologikoa sortzea.

LANA

- Kontratazio publikoetan klausula bereziak jasotzea, transexualen edo egoera irregularrean dauden pertsonen kontratazioa lehenesteko.
- LGTBI herritarrei zuzenduriko enplegu-programa sortzea.

ADMINISTRAZIOAREKIKO HARREMANA ETA PARTE-HARTZE POLITIKOA

- LGTBI mugimenduaren eta erakundearen arteko komunikazio-bideak indartzea.
- Komunitatean eragina duten gaien inguruko parte-hartze prozesuak susta daitezela eta mugimenduari berari eragiten dioten gaien inguruko kontsulta egitea.
- Diagnostikoa egiteko prozesuaren ondorioz sortu den taldeari erakundearen laguntza eskaintzea.
- LGTBI ikuspuntua Udalaren DNA sortzailean txertatzea.
- LGTBI memoriari buruzko lan-ildo bat txertatzea Udala giza eskubideen urraketen alorrean memoriarekin eta aitortzarekin lotuta egiten ari den lanean.

13

ONDORIOAK

ONDORIOAK

Erreneriako LGTBI errealitate guztiak txosten bakar batean jasotzea ia ezinezkoa da; alabaina, orrialde hauetan oro har ikusi ahal izan dugunez, LGTBI pertsonen bizitzak hobetzeko urratsak ematen jarraitu behar dugu oraindik ere.

LGTBI pertsonak beren bizitzak askatasun osoz bizitzeko errealitateak urrun baldin bagaude ere, mugimendu politikoak, bide hau estutze aldera ekarpen handia eta zuzena egiten du. Zentzu honetan, Erreneriako kasua erreferentzia bat da eta bere memorian sakontzea erabakigarria izan daiteke mugimenduaren indartzean. Kohesioeratik ez dagoen mugimendua bada ere, diagnostikoaren ondoren sakabanaturik egoteari utzi dio.

Nahiz eta udalek gai askotan eskumenik izan ez, bide horretan aurrerapauso asko egin ditzaketen erakundeak dira udalak, zalantzarik gabe, ErreferenteEkin txostenean planteatzen diren proposamenek erakusten duten moduan. Instituzioetatik egiten den lana, LGTBI pertsonak hobeto bizitzeko eta bazterkeria ez sufritzeko laguntza eskaintzea baino askoz ere zabalagoa izan daiteke. Beren politika publikoak herri osoari zuzendurikoak izan behar dute, heterosexualitatea erregimen politiko gisa ulertu eta zalantzan jartzera bideraturikoak.

Hala, ErreferenteEkin lanaren bidez udal zerbitzu ezberdinetatik martxan jarri daitezkeen hainbat proposamen (19) identifikatu dira. Lan talde handitan banatu daitezke. Lehenengoa, bere aniztasunean LGTBI komunitatearen ikusgarritasunean laguntzera bideraturiko komunikazio kanpaineekin loturikoa litzake, errealitate honen inguruan dauden estigmekin hausteko.


Bigarren talde batean, diskriminazio positibo gisa funtzionatzen duten proposamenak biltzen dira, LGTBI pertsonak

beren genero eta sexu orientazioagatik jasaten duten bazterkeria arintzen lagunduko dutenak. Hirugarren taldean, jada eman den indarkeria LGTBIfobikoari aurre egiteko pentsaturikoak daude; eta, azkenik, indarkeria honekin amaitzeko eta eredu sexuala aldatzearekin loturikoak daude, bereziki, formakuntzan oinarrituriko neurrietara bideraturikoak.

Diagnostiko hau eremu batzuetan lanean asteko erraminta gisa aurkezten da, baina, oraindik, agerturiko proposamen asko garatzea falta da, poliki-poliki agertzen diren eskaera berriak integratzen joatea hain zuzen. ErreferenteEkin-etik lanean jarraitzeko atea irekirik gelditzen da, Erreneria hetero-zentratua ez den herri gisa eraikitzekoa; denboran luzea eta egonkorra den prozesu batez ari gara, baina, zalantzarik gabe, jada bidean dagoena.

19 / Proposamen guztiak aurreko atalean ikusgai.

BIBLIOGRAFIA



BIBLIOGRAFIA

Coll-Planas, G.; Bustamante, G. y Misse, M. (2009): *Transitant per les fronteres del gènere. Estratègies, trajectòries i aportacions de joves trans, lesbianes i gais*, Col·lecció Estudis, n.25

Ayuntamiento de Barcelona. (2009), *Dianóstico de las realidades de la población LGTB de Barcelona*,

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz. (2018), *Desirak plazara. Diagnóstico sobre las realidades de la población LGTBI en Vitoria-Gasteiz*

Hill Collins, P. (1991): *Black Feminist Thought: Knowledge, consciousness and de politics of empowerment*, Routledge

Coll-Planas, G. (2015): *Diversidad sexual e identidad de género*, Revista GALDE 10

Martínez, Y. (2011): *Sexilios: Hacia una nueva poética de la erótica caribeña*, Universidad de Salamanca

Miralles, N. (2019): *Género y políticas de la inseguridad. Una mirada feminista a los impactos de la militarización en Occidente*, Infome 36, Centre Delàs

ERANSKINA

I ERANSKINA.

PROZEDURA ULERTZEKO DOKUMENTU METODOLOGIKOA

Kontrasterako gune parte-hartzaileak sortzearekin batera, kualitatiboak nahiz kuantitatiboak diren hainbat lanabes metodologikoz baliatu gara diagnostiko hau egiteko. Bada, sei hilabetetan egin dugu prozesu osoa [diseinua, landa-lana, azterketa eta idazketa], 2019ko urtarriletik ekainera bitartean.

Eranskin honetan, analisia nola egin dugun eta landa-lana nola antolatu dugun azalduko dugu. Hala, hasteko, azterketaren aldagaiak definitu ditugu, LGBTI pertsonen eragiten dieten problematika jakin batzuk (osasuna,

hezkuntza, aisialdia...) identifikatu ditugu, eta horien argazki zehatz bat atera nahi izan dugu. Ondoren, alde batetik, galdetegi bat egin dugu, eta, bestetik, sakoneko elkarrizketak egiteko gidoia diseinatu dugu.

Bada, galdetegi <https://herribizia.errenteria.eus/lgtbi/> orrialdean egon da zintzilikaturik, eta askotariko sexu-identitateak eta -joerak dauzkaten 25 pertsonak erantzun dute (hamabostek gaztelaniaz, eta hamarrek euskaraz).

Erantzunak



Esan dugun bezalaxe, sakoneko elkarrizketetarako berriazko gidoia sortu dugu; hala ere, malgutasunez jokatu dugu, eta elkarrizketatuen premietara egokitu. Bestalde, xedeei begiratzuz gero, Errenteriako LGTBI maparen silueta osatzen lagunduko diguten estatistika-datuak jasotzea izan da galdetegiaren helburu nagusia; sakoneko elkarrizketekin, ordea, mapa horren koloreak eta eraketa ezagutzea izan da helburua. Hain zuzen ere, elkarrizketa horietan identifikatu ahal izan ditugu LGTBI konglomeratuak aurrez aurre dauzkan arazoak, oztopoak eta erresistentziak. Guztira, 24 elkarrizketa egin ditugu, eta, taulan ikus daitezkeen moduan, askotariko profilak dauzkaten pertsonak bildu dira.

CÓDIGO	OTROS DATOS
X001	ETIKETARIK EZ
L002	LLESBIANA, GAZTEA
T001	TRANSEXUALA, GAZTEA
B001	GIZON BISEXUALA, GAZTEA
G001	HOMOSEXUALA, GAZTEA
L003	LESBIANA, NAHITAEZKO MIGRAZIOA
L004	LESBIANA
L005	LESBIANA
B002	BISEXUALA, NAHITAEZKO MIGRAZIOA
B002	BISEXUALA, AKTIBISTA FEMINISTA
I001	INTERSEXUALA
G002	HOMOSEXUALA, HELDUA, AKTIBISTA
G003	HOMOSEXUALA, HELDUA, AITA GURASOBAKARRA
T002	TRANSEXUALA, ADIN TXIKIKOA
P001	PANSEXUALA, ADIN TXIKIKOA
L006	LESBIANA, ADINEKOA, AKTIBISTA
L007	LESBIANA, HELDUA, NAHITAEZKO MIGRAZIOA
LT001	LESBIANA, HELDUA, HAUR TRANS BATEN AMA
L008	LESBIANA, HELDUA, AKTIBISTA, MIGRANTEA
L009	LESBIANA, HELDUA, MIGRANTEA
G005	GAYA, GAZTEA, ERREFUXIATUA, AKTIBISTA
G004	MARIKA, ADINEKOA, AKTIBISTA
LT002	LESBIANA, HELDUA, HAUR TRANS BATEN AMA
T002	EMAKUME TRANS, MIGRANTEA (HONDURAS), AKTIBISTA



Sakoneko elkarrizketek LGBTI komunitatearen errealtatearen gaineko diagnostiko nahiko zehatza egiteko aukera eman digute, eta, halaber, hainbat hobekuntza-proposamen atzeman ditugu horien bidez. Hala ere, eztabaida-taldeak erabili ditugu proposamen horietan sakontzeko, beste hainbat identifikatzeko edota airean geratu diren zenbait gai garatzeko helburuarekin. Horri begira, hiru eztabaida-talde egin dira, eta, horietara, LGBTI multzoko hainbat kide ez ezik, beren ibilbidea

dela, eskarmentua dela edota dedikazioa dela, jorratu diren gaien inguruan zer-esanik baduten pertsonak ere gonbidatu dira. Ordu eta erdiko iraupena izan du eztabaida-talde bakoitzak, eta hiru gai hauen inguruan hitz egin da horietan: 1) LGBTI pertsonak zahartzea, 2) aisialdia eta espazio publikoaren erabilera eta 3) hezkuntza. Horietako bi erdaraz egin dira, eta bestea euskaraz [parte-hartzaileek eskaturiko hizkuntza lehenetsi da].



Azkenik, sakoneko elkarrizketa bana egin dugu Udaleko hiru teknikarirekin, LGTBI errealtatearen gainean duten ezagutza zein den, beren sailetan egiten ari diren –eta egiten ari ez diren– ekintzak zein diren eta hautemandako askotariko proposamenek zer-nolako bideragarritasuna eta ibilbide instituzionala eduki litzaketen ikusteko xedez. Bada, honako hauekin egin dira elkarrizketok:

- _ Udaltzaingoko arduraduna
- _ Berdintasunerako teknikaria
- _ Parte-hartzeko teknikaria

Landa-lana abiarazi baino lehen, talde motorra osatu dugu herriko hainbat LGTBI aktibistarekin, eta aniztasunari heltzen saiatu gara talde-eraketa horretan (askotariko adinak, egoerak eta ibilbide politikoak). Lau aldiz bildu da taldea, eta ikerketarako kontraste-gunea izateko balio izan du; halaber, diagnostikoaren hurrengo faseei euskarria emateko eta aldagai berriak zehazteko balio izan digu. Adibide bat jartzearen, analisiaren aldagaiak aurkeztu genizkien bileran, eta ikerketa-taldeak kontuan izan ez zuen aldagai bat txertatzeko proposamena egin zuten (hizkuntzaren erabilera edota hizkuntzarekiko harremana): zalantzarik gabe, emaitzak aberastu ditu horrek. Talde motorra eratzeaz gain, hainbat bilera irekitara bertaratzeko deia egin zaio LGTBI komunitate osoari (guztira, hiru bilera ireki egin dira). Bada, bilkura horiek, zeinak euskaraz egin diren gehienak, diagnostikoaren bilakaerari buruzko informazioa partekatzeko eta zenbait erabaki (leloaren definizioa, ikertu beharreko lehentasunak eta abar) hartzeko aukera eskaini digute, sakabanaturik zegoen komunitate oso bat elkartzearekin batera.